

noauea

**Hauteskunde giro
betean gara**

**Usurbil dantzarien
plaza larunbatean**

**Usurbil K.E.-ko juvenil
mutilak, Espainiako
sektorera**



**Aginagatik iritsiko da
Korrikaren deiadarra**



*Jantzi kolorez zure etxe,
balkoi zein lorategia!*



San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55

Turquía

AZKEN GELAK!

NOAOA
BIDAIK

943 373 613

BIDAIK TALDEAN

IRTEERA EKAINEN
LASARTE ORIATIK, NOAOAK GIDATUA

info@noaoa.eus **noaoa.eus**

31 ETXEBIZITZA BERRI UGARTONDON



Pertsonalizatu zure etxebizitza nahi duzun modura



Armairuak



Sukialdea



Pertsonalizazioa

943 30 29 20


www.sukia.com

sukia
Zure etxean zaude

Albisteak iruditan

EUDEL elkarteak Andres Bruño omendu du

Francoren diktaduraren ostean ospaturiko lehen udal hauteskundeetatik 40 urte bete ziren apirilaren 3an. Urtemugaren harira, demokrazia garaiko lehen alkate izandakoak omendu zituen Euskadiko Udalen Elkarte EUDEL-ek apirilaren 5ean Gernikako (Bizkaia) Batzarretxean. Tartean, trantsizio garaiko Usurbilgo lehen alkate Andres Bruño. Senideekin bertaratu zen, baita udal ordezkaritza batekin. Egungo alkate Xabier Arregik zioenez, ondo merezitako aitortza eta omenaldia jaso zuen. “Ohore handia izan da une hau Andresekin partekatzea, eta beraz, gure partetik usurbildarron izenean ere aitortza, zorionak eta esker ona adierazi nahi diogu Andres Bruñori”. Berarentzat berezia den lekuan omendu zuten. “Andresek ere badu Gernikarekin bestelako loturarik.



Udalaren argazki honetan, Andres Bruño aginagarra Xabier Arregirekin Gernikako batzarretxean.

Izan ere gerra garaian hemen egotea egokitu zitzaion eta berak kontatzen duenez, hegazkin batek ametrallatu zuen. Berak dio txiripaz atera zela bizirik. Beraz Andres

Gernikan gertatutakoaren lekuko bizia da, gure historiaren pasarte beltzenetako baten lekuko bizia”, adierazi du Arregik sare sozialen bidez.

Laburrean

Kubako aniztasun sexualaren erakusketa

Apirilaren 15etik 28era ikusgai izango dugu Sutegiko erakustaretoan. Tadamun Usurbilgo elkargune internazionalistak antolatu du, Kubako aniztasun sexuala plazaratuko duen erakusketa hau.

Maiatzaren 3ra arte, NOAUA!rik ez

Apirilaren 19an eta 26an ez da NOAUA!rik izango. Hurrengo astekaria maiatzaren 3an. 779. zenbakirako ohar edo zorion agurrik baldin baduzue, apirilaren 28a baino lehen NOAUA!ra helarazi.

Odol ematea, maiatzaren 6an

Hurrengo bi asteotan NOAUA!rik izango ez denez, ondo apuntatu zuen agendan. Odola emateko emaileen elkarteak deitutako hurrengo hitzordua, maiatzaren 6an, 18:00-20:30 artean anbulatorioan.

noaqua

Kultur Elkarteak

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 // elkarte@noaqua.eus // www.noaqua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaqua.eus
Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,
erredakzioa@noaqua.eus:
Imanol Ubeda, Itsaso Orbegozo,
Aritz Lasarte.
Banaketa: Iñaki Irazusta, Jon
Galbete.
Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria
Jesus Urbietza, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,
Jon Etxabe, Alazne Begiristain,
Denis Elortza, Pello Aranburu,
Xabier Aranburu, Inma Balda,
Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,
Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia
Torregarai eta Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.
Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herreria!



Luis Aranalde

Gure gazteak eta filosofia

Jakinduria zalea esan nahi du filosofia hitzak. UNESCOaren esanetan, libertatearen eskola da filosofia; berari esker, gure gazteek heldutasun intelektuala lortzen dute, tresna egokiak ematen dizkie enigma handienei erantzuteko eta lagundu egiten die bereizten etika indibiduala eta soziala; eta agian garrantzitsuen, babestu egiten ditu gure gazteak manipulazio, gezur eta dogmatismo guztien aurka.

2013an, filosofia bigarren mailako gai bihurtu zuen Jose Ignacio Wert ministro eztabaidatuak. Filosofia baztertuz, heziketa humanistikoari garrantzia kendu egin zion. LOMCE deritzon legearen ondorioa izan zen aldaketa triste hori.

Baina gauzak aldatu dira: orain, alderdi guztiek, PP barne delarik, itzuli egin nahi diote filosofiari berez eduki behar duen garrantzia eskola munduan; Matematikaren eta Historiaren mailako ikasgai izan dadin nahi dute orain. Jarrera berri honen ondorioak: lehen-

bizi, PP-k aitortzea bere errua eta bigarren, diru-laguntza handiagoak ematea Hezkuntza arloari, lehen kendu zitzaizkionak berreskura ditzan.

Haurrek eta gazteek pasatzen dute beren bizitza gauzen zergatia galdetzen. Berezkoa dute jarrera hau eta filosofoena ere ez dago hain urruti: lehengoak eta oraingoak galdera zehatz batzuei erantzuten saiatu dira.

Baina eskoletako filosofiak ez du mugatu behar pentsalarienezkeriak eta beren teoriak estudiatzera bakarrik. Klase horiek bihurtu behar lukete gure egoki debate sakonak egin eta zalantzak planteatu ditzaten, gatazkei soluziobide bat eman diezaieten, gogoeta pertsonala eta taldekoa egin ondoren.

Filosofiak dituen abantaila guztiak garatzeko metodologia aldatu beharra dago: ikasleek estudiatu behar dute filosofia baina praktikatu. Jakina, gaztetxo eta gazteekin filosofatzeko moduak ere aldatu behar ditu irakasleak, beren adinaren eta interesen arabera.

Honen harira, arau batzuk irakurri ditut duela aste bate. Fi-

losofia klase hauek egoki emateko modu bat izango litzateke arte obra batzuk jarri gatzetxoaren aurrean eta eskatu ea zer ikusten duten eta esaten dieten irudi eta koadro horiek. Metodo hau ontzat ematen zuten mutiko eta neskatoen imajinarioa garatzeko eta beren ideiak eta pentsamenduak deskribatzeko ikasteko. Bigarren era: muralak egitea giza gaiak garatzeko eta beren alderdi konplexuak adierazteko. Talde lana sustatuko lukete, estilo horretako ekintzek.

Hirugarren bidea klasean debateak bultzatzea litzateke; metodo hau klasikoa da eta eragilea. Santo Tomas lizeoan hirugarren hau erabiltzen nuen gehienetan, erlijioa eta giza hezibidea irakasterakoan. Gure klasikoek esaten zuten: “philosophia ancilla theologiae”, hau da, filosofia da teologiaren zerbitzaria. Hirukote batek prestatzen zuen gai bat, gertakizun bat, erlijioarekin edo etikarekin lotutakoa. Alderdi baikorrak eta ezkorrak aztertu eta gero eztabaida irekia zuzentzen zuen hirukoteak. Hala, filoso-

fatzen irakasteaz aparte, elkar errespetatzen ikasten zuten, albokoaren iritzia entzun ondoren hitz egiten, zentzu kritikoa lantzen, toleranteak izaten eta abar.

Zalantzarik gabe, filosofiak ez du izan behar “asignatura maria” bat. Noiznahi kendu eta jarriaz, politikariek argi adierazi dute orain arte ez zutela beharrezkoa ikusten. Inoiz baino beharrezkoagoa da gaur filosofia. Bizi gara gaurkotasan birtual batean eta “egia-ostean” eta pentsatzeko gaitasuna galtzeko arriskuan gaude. Bizitzaren aurrean erabaki egokiak hartzen lagundu behar lieke filosofiak gure gazteei, Filosofiaren historia erakustea baino haratago joanez. Horrela lagunduko lieke beren nortasuna garatzen. Batzuen ustez, Interneten eraginez azalkeria eta arinkeria nagusitzen eta pentsamendu sakonak lantzeko gaitasuna galtzen ari da gure gazteen artean. “Medikua edo ingeniaria izan aurretik, pertsona izaten ikasi behar dugu”, dio irakasle batek.

Aroa Etxeburua Ugartemendia | Garazi Lizaso Manterola | Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | **Luis Aranalde** | Luken Arkarazo

Ika-mika

665 eskerrik asko

Jada, esan dezakegu hurrengo hauteskunde orokorretan lehiatu ahal izango dugula. Aulki Zuriak - Escaños en Blanco alderdiak 665 abal edo sinadura lortu ditu.

Lan itzela egin behar izan dugun azken asteetan, sinadura

horiek bildu ahal izateko. Alderdi handiek, profesionalizatuak, ez dute ahalegin hau egin behar izan, hauteskunde legearen alde baitute.

Boluntarioki aritzen garenok, sosik kobratu gabe, kalean aritu gara sinadurak biltzen. Batzuk

lan kontuak erdizka utzi ditugu, beste batzuk opor egunak erabili ere bai, gehienok familia erantzukizunak.

Banan bana eskertu nahi ditugu 665 pertsona horiek. Mila esker guztioi, bihotzez. Zuei esker hautets-mahaietan Aulki

Zuriak - Escaños en Blanco alderdiaren presentzia bermatua izan da, zuei esker demokraziak irabazi du.

Luisuari Ormaetxea Santsiñena, senatarigaia (Aulki Zuriak-Escaños en Blanco)

Gazte Topagune berezi eta ahaztezinarako gonbita Ernaitik

Intxortara eginiko irteeratik bueltan, Usurbilgo Ernaik martxoaren 30ean ospaturiko Bulkada Egunean, apirilaren 19tik 22ra Lemoan (Bizkaia) ospatuko den Gazte Topagunea aurkeztu zuten, herriko musikariek girotu zuten ekitaldian.

Topagune berezia izango da, gazte antolakundearen 40. urtemugakoa. “Ia 40 urte antolakuntza eta borrokari ekin geniola eta hemen gaude, bizirik eta indartsu”, zioten Ernaiko kideek. Orain arteko bideari jarraitu asmo diotela adierazi zuten. “40 urteetako lekukoa hartu eta bulkada berriok ere independentzia, sozialismoa eta feminismoa lortu arte lanean jarraituko dugu”.

Inoizko topagune berezi eta ahaztezinera joateko gonbita luzatu zuten. 3 egunetarako 70 euroko bonoak Hernaniko Garinen dituzue salgai, eguneko 25 euroko sarrerak Interneten.



Musikaz blaitu zuen Usurbilgo Ernaik, astebete barru Lemoan ospatuko den Gazte Topagunea aurkezteko martxoaren 30ean plazan egin zuten ekitaldia.

Lemoara joateko eskualde mailako autobusa antolatzeakoa dira.

Rukula

Gazte Topagunean denetarikoko ekitaldiak iragarri dituzte astebete barrurako. Tartean, musika eskaintza zabala. Usur-

bil-Lasarteko musika talde baten kontzertua esaterako, apirilaren 20an, 13:30etan Lemoan; Rukulakoena, Martxel Arkarazo (baxua), Jon Agiriano (gitarra), Oihan Agirretxe (bateriar) eta Aitor Pagolarekin (gitarra). Informazio gehiago hemen: gaztetopagunea.eus

Maite Peñaren hitzaldia

“Ze estrategia du Gipuzkoako nagusien bizi-kalitatea hobetzeko?” hitzaldia eskainiko du Maite Peña gizarte politikako foru diputatuak ostegunean (apirilak 11) 18:00etan Artzabalen. Usurbilgo EAJ-k antolatutako hitzaldiaren harira, bozeramaile Josune Urkolaren esanetan zalantzak argitzeko aukera ona izango da eta “gure herrian ditugun beharrak aurrez aurre partekatze” ere.

Harria Hitz bisita gidatua

Usurbilgo kultur altxorrak, ezagutzeko aukera larunbat goizean 10:00etan Usurbilgo frontoitik. Izen ematea: 688 81 80 17 edo info@kultour.pro

Zumetaren erakusketa

Maiatzaren 11ra arte Bilboko Juan Manuel Lumbresasen arte galerian (Henao kalea, 3) J.L. Zumetaren artelanak.

Ika-mika

Pentsiodunok erabaki ahal dugu

Hauteskunde aldiaren garaian sarturik gaude. Agerikoa da apirilaren 28an hauteskunde orokortarako deia eginda dagoela, zeintzuetan pentsiodunen mobilizazioak garrantzitsuak izango diren.

Horrexegatik, gaur hemen bildu garen plataformok eta pertsonok inoiz baino irmoago eta inoiz baino konbentzituago esan nahi dugu gure aldarrikapenak lortu arte ez dugula etsiko, oraingo eta etorkizuneko pentsiodunak duintasunez bizi eta lanean ari gineneko lan-eskubideak ere errespetatuak izan arte. Alderdi guztiei eta gizarteari oro har gogorarazi nahi diegu, martxoaren 28an

berretsi genituela gure aldarrikapenak eta honako hauek direla:

■ Pentsioen Sistema Publikoa blindatzea pentsio duinak bermatzeko.

■ Urrats esanguratsuak eman Europako Gutun Sozialarekiko konpromisoak betetzeko.

■ Legez eta betirako bermatu gure urteroko eros-ahalmenak, KPIaren ordaina gutxienez.

■ 1.080 euroko gutxieneko pentsioa ezarri.

■ Azpimarratu nahi dugu bai Euskadiko eta baita Nafarroako gobernuek euren egin eta osa ditzatela gaurko pentsioak kopuru horretara hel daitezen.

■ Lanbide arteko gutxieneko soldata: 1.200 eurokoa. Solda-

ta duinik gabe, ez dago pentsio duinik.

■ Prekariatatea areagotuko duten lan erreformak indargabetzea.

■ 2011ko eta 2013ko lan eta pentsio erreformen alde atzerakoiak indargabetu.

■ Jasangarritasun faktorea betik indargabetu.

■ 40 urte kotizatutako erretiro aurreratuari zigorrak ez.

■ Genero arrazoiengatik gizonen eta emakumeen pentsioen artean dagoen arrakala desegiteko neurri eraginkorrak.

■ Abantaila fiskalik ez, Pentsioen Plan Pribatu eta EPSV-entzat.

Bukatzeke, Hego Euskal Herriko pentsiodun guztiei eta

herritarrei orokorrean dei egin nahi diegu, eta baita estatuko herritar guztiei ere, parte har dezatela manifestazioetan eta ekitaldietan, asteleheneroko elkarretaratzeetan, eta batez ere, apirilaren 13an gure lau herrialdeetako hiriburuetan, eta estatuko hainbat lekutan deitutako manifestazioetan.

Adierazpen hau hasi bezala bukatu nahi dugu: batak zein besteak gobernatu, pentsioak defendatu. Deialdi berezia egingen diogu gizarteari, apirilaren 13an, kalera irteteko. Donostian arratsaldeko 17:00etan Alderdi Ederren.

Hego Euskal Herriko Pentsiodunen Plataforma

“Usurbildarrak ez dira kontziente, ze puntutaraino diren eredu kanpoan”

Atez ateko bilketak 10 urte bete ditu. Ohitura aldaketa txiki batek, iraultza ekarri zuen Usurbila 2009an. 10 urte igaro direnean, zoriontzeko motiborik badugu, urtemuga bera bete duen Atez Ateko Bulegoko langile Amaia Salsamendik NOAA!ri adierazi dionez. Hamarkada bat darama herritarren zalantzak argitu, kexak eta eskaerak bideratzen. Gogoan du hasiera nolakoa izan zen. “Jendeak atez atekoa probatua ez zuenez, irudikatzeke zaila zuen”, oroitzen du Amaiak. Baina bilketa sistema hau abiatu aurretik 2008ko udazkenean eginiko aurrekaririk gabeko auzokako parte hartze prozesuaren arrakastak guztia aldarazi zuen. “Parte hartze handia egon zen eta habestuak egon ginen”.

Azken prestaketa lanen ostean heldu zen 2009ko martxoaren 16a, organikoa bilduz heldu zen atez atekoa Usurbila. Lan karga handiko egunak izan ziren haiek aipatu udal bulegoentzat, beldurra bazuten ia zer gertatuko ote zen. Baina “harritu ginen jendeak ze ondo hartu zuen”. Izan ziren kezak eta kexuak hasieran organikoaren usainarekin esaterako, baina denborarekin apaltzen joan ziren.

Ezarpen urteak bizi izan dituzte ordutik, atez atekoa zabaltzen joan dira, auto- eta auzokonpostatze egitasmoak



10 urte bete ditu atez ateko bilketak. %85eko baliabideak biltzen dira Usurbilen, soilik %15 dira hondakinak.

**AMAIA SALSAMENDI,
ATEZ ATEKO BULEGOKO
LANGILEA:**

**“Harritu ginen jendeak
zer ondo hartu zuen atez
atekoa”**

sustatzen, sortzez besteko ordainketa sistema abiatu zuten...

Miretsiak kanpotik

Salsamendiren esanetan, oraingo erronkak mantentze eta hobetze lanetan kokatuak dituzte, “sistema perfekturik ez baitago. Beti dago zer hobetua”.

%85eko gaikako bilketa izan eta geroz eta zailagoa den arren, “hondakin onena sortzen ez dena” dela gogorazten digu udal langileak. Zer nolako kontsumo eredu nahi dugun, poltsa konpostagarrien gaia kudeatzea, kontzientziatze kanpainak, ... Usurbilek aitzindari eta eredugarri izaten segi nahi badu, bada zer eginga.

Aitzindariak eta eredugarriak baikara, askotan jabetzen ez garen arren. “Usurbildarrak ez dira kontziente ze puntutaraino eredu diren kanpoan”, Ibon Goikoetxea ingurumeneko udal teknikariak NOAA!ri adierazi dionez. Aitzindari izan da 10 urteotan Usurbil hemendik kanpo eta hala izaten segitzen du. “Harritu samar geratzen dira kanpoan Usurbilen zer emaitza lortzen diren, eredu bezala sentitzen dute”, dio Goikoetxeak.

Berriki Gironan izan da, mundu mailako topaketa batean parte hartu du, bertan “Usurbilek txokoa izan zuen. Eredu eta erreferentzia gisa hartzen gaituzte”. Praktika on bezala hartua du atez atekoa Espainiako Gobernuak berak ere. Eta Usurbilen bisitan izan ditugun Valentzia, Galiza edota Inglaterra erakunde ezberdinetako ordezkariak ere gauza bera berretsi dute, miresmenek ikusten gaituztela nabarmentzen du

Goikoetxeak. “Zorionez, hondakinen gaia ikuspegi zabala-go batetik aztertzeke patxada dago hemendik kanpo”, bere esanetan. Handitzen doa gainera, Usurbilen bidea hartu duten udalerrien kopurua. “Katalunian adibidez, 2018an 156 udalerrik atez ate biltzen zituzten hondakinak. 2019an 204k. 50 herri gehiago urtebetea”.

Aurrera begira, orain atekoa mantentzea izango da erronketako bat. Hobetzeko geroz eta tarte txikiagoa dagoen arren, %90eko gaikako bilketa-raheltzeko erronka finkatua du herri honek “Usurbil 0.0” egitasmoan. Prebentzioan, erabilera bakarreko plastikoetan, erreusaren erdia edo badiren pardeletan, herri konpostan... eragin beharreko lan arloak direla aipatu digu Ibonek. 2019an hondakinen inguruko udal ordenantza berritzea ere jomugan artean dute.

Hondakinak ez, baliabideak

Eta terminologia ere aldatzen hasteko garaia heldu dela dio. %85eko gaikako bilketa izanda, hondakinak %15a izanik honenbestez, hondakinen bilketa deitzeari utzi eta gure hiztegian lehengai kontzeptua txertatzea proposatzen digu udal teknikariak. “Lehen %60-70 hondakinak ziren baina orain %15 dira. Honenbestez, gaur egun Usurbilen, hondakinak baino baliabideak biltzen ari gara”.

ARRANDEGIA PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91 USURBIL

ORDUTEGI ETA TELEFONO BERRIA!
EGIN ZURE ESKAERAK WHAAPP-ETIK!


ETXETRESNEN KONPONKETAK eta SALMENTA
MARKA GUZTIAK azkar, prezio onean
20 URTEKO ESPERIENTZIA
645417665
XABIER Usurbil

JUANTXO BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

Usurbilek %85eko gaikako bilketa du egun

Atez ateko bilketak 10 urte bete dituen hone-tan, Usurbilen %85ean dago gaikako bilketa, San Mar-ko Mankomunitateko eta Gi-puzkoako ehunekoen gainetik nabarmen.

Baina denboran atzera egin dezagun. %30ekoa zen Usurbilen 2009an, edukiontzien sistemarekin. Atez ateko bilke-ta martxan jarri eta beherala egin zuen gorantz, urte hartan bertan %71raino eta hortik go-rantz egungo %85eraino. San Marko Mankomunitateko batz besteko datuak ia bikoiztera heldu da Usurbil. 2008an, edu-kiontzien sistema genuenean, gaikako bilketa %30ekoa zen Usurbilen, %28koa San Mar-ko eta %32koa Gipuzkoan. 10 urte beranduago, 2018an, %47an da gaikako bilketa San



Hondakinen gaikako bilketak azken hamarkadan Usurbilen, San Marko Mankomunitatean eta Gipuzkoan izan duen bilakaera.

Markon, %53an Gipuzkoan eta %85ean Usurbilen!

Datu gehiago, 2008an 2.870 tona hondakin bildu ziren urte osoan, 2018an 3.185. 2010ean 3.504 tonara heldu ostean, murrizten doa bildutako hiri hon-dakinen kopurua. Errefusak

beheranzko joera argia erakut-si du. 653 tona 2011n, 486 2018an. Kopuruez gain, kalita-tea aipatu behar; Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren eskutik Udalak jasotako da-tua. 2018an, bildutako bio-hondakinen inpropioen maila

%1,23koa da Usurbilen. Kali-tate gorenekoa beraz.

Defizit 0

Ikuspegi ekonomikotik, 202.000 euroko defizita zuen hondakinen bilketak Usurbi-len 2008an, 2018an 232.000 eurokoa. “10 urteotan %30etik %85eko gaikako bilketa izatera pasa gara, eta 20.000 euro bai-no ez da garestitu zerbitzua”, Udalaren esanetan. Halere, defizit 0 izatera heltzea dute erronka.

Erreus bilketa datak

Dakizuenetz, erreusa bi igan-dean behin biltzen da Usur-bilen. Apirileko erreusaren bilketa egunak honako hauek izango ditugu; apirilaren 7a eta 21a. Hilaren 14an eta 28an ez da erreusa bilduko.

10 urteetan hamaika aurrerapauso zero zaborrerantz

- 2008an zehar: atez ateko bilketa definitzeko auzokako parte hartze prozesua egin zen.
- 2009/01-03: azken prestaketa lanak; kuboen banaketa, zintzi-likagailuak jartzea...
- 2009/02/13: udalbatzaren ezohiko osoko bilkura. Atez atekoa abiatzea onartzen da.
- 2009/03/14: edukiontzia- agurtzeko ekitaldia.
- 2009/03/16: atez atekoaren hasiera; organikoaren bilketa.
- 2009/04: Udalak 4 hilabete-rako finkaturiko erronka lau astetan bete zen. Atez atekoak, %28,42tik %76,08ra igo zuen gaikako bilketa Usurbilen.

- 2010: atez atekoa poligonoe-tan.
- 2010/02/27-28: herri galdeke-ta: “Zein bilketa sistema nahi duzu Usurbilerako?”. Atez ate-koa garaile. 1.927 bozka atez atekoaren alde, 1.472 5 edu-kiontzien sistemaren alde. Parte hartzea, %70ekoa.
- 2010/03/12: Zubietako erraus-tegiarentzako moratoria es-katzen zuen Usurbilgo Ituna sinatu zuten eragile anitzek Kursaal.
- 2011/03/20: errausketaren aurkako eta alternatiben aldeko flash mob jendetsua Zubietan.
- 2011/11/26: lehen au-

- zokonpostatze gunea inaugura-tu zuten Errekaxikin. Ordurako ia 600 sendi ari ziren organikoa konpostean bihurtzeko lanetan. Gerora, konpostatze guneak eta egitasmo honekin bat eginiko sendiak ugaritzen joan dira.
- 2012/07/16: Garbigune be-rriarren inaugurazioa Atallun.
- 2014/07/06: hondakinen sortzez besteko ordainketa sis-temaren abiatzea. Erreusari aplikatu zitzaion. Erreusaren bilketa bi asterokoa izatera iga-ro zen.
- 2015/07/01: atez atekoa mar-txan jarri zuten Zubietan, Usur-bilgo partean. Donostiako lu-

- rretan bizi direnei atez atekora batzeko aukera eskaini zitzaie-n.
- 2016/12/22: Usurbil 0.0 aur-keztu zuten, herriari hondaki-nen kudeaketa eredu integral baterantz bidea jorratzen lagun-duko dion egitasmoa.
- 2019/03/16: atez atekoak 10 urte. Usurbilgo gaikako bilketa %85ekoa da.
- 2019/04: atez atekoa Zubiet-a osora hedatzeko bidea zabal-du da. Zubietako hondakinen kudeaketa Usurbilgo Udalaren gain geratu da, udal honek Do-nostiakoarekin sinatu duen lan-kidetza hitzarmen orokorrageo baten baitan.

EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITAR TEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus

Patri Jatetxea

· bazkariak EGUNERO
· afariak, asteazkenetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

Kudeaketa eraginkortzeko hitzarmena Zubietarako

Zubietako zerbitzu eta azpiegituren kudeaketa eraginkortzeko hitzarmena sinatu zuten joan den astean Usurbilgo eta Donostiako Udalek. Lau urterako sinatu dute, beste lau urtez luzagarria izango da.

Lankidetzaz hitzarmen hau Usurbilgo Udaleko udalbatzak martxoaren 28ko osoko bilkuran onartu zuten aho batez. Udal gobernu taldetik hitzordu hartan ziotenez, bi udalek Zubietari eskaini beharreko zerbitzu bakoitza zeinek hartuko duen bere gain argitzea du helburu. Hitzarmenak bi udalerrioi Zubietari zerbitzuak nork eta nola emango diren zehazten du.

Batzordea eratuko dute

Zubietako Herri Batzarretik aspaldi eginiko eskaeran du jatorria hitzarmen honek. Udal gobernu taldetik azken plenoan nabarmentzen zutenenez, lanketa luzea eskatu du bi udalak, Usurbilgoa eta Donostiako adostasun honetara heldzeak. Hitzarmena onartu eta sinatu ostean, batzorde bat eratuko da, zerbitzuen banaketa gauzatzeak eskatuko dituen egokitzapenak bideratzeko eta aurrera begira, hitzarmenari berari jarraipena egiteko.

Uraren hornidura, saneamendu sarea, bideen garbiketa, parkeak, lorategiak eta zuhaitzak, landa bide publikoen garbiketa eta mantentzea, argiteria publikoa, hiri altzariak,



Lankidetzaz hitzarmen berriak, Zubietako osoko hondakinen kudeaketa Usurbilgo Udalaren esku utziko du.

garraio publikoa, instalazio eta ekipamendu publikoak, mantentze jarduketak, logoak eta hondakinen kudeaketa nork eta nola egin zehazten du hitzarmen izenpetu berriak.

Hondakinen kudeaketa Usurbilen esku

Zubietako kudeaketa publikoa eraginkortzeko hitzarmen honek badakar aldaketa nabarmen bat; hondakinen kudeaketari dagokiona. “Donostiako Udalak Usurbilgo Udalari eskuordetzen dio hondakinen bilketa zerbitzuaren eskumena, atez ateko sistemaren bidez, eta hark eskuordetze hori onartu egiten du, Zubietan-Donostian bizi eta borondatez eskatzen duen pertsonen emateko”.

Honenbestez, Zubietako osoko hondakinen kudeaketa Usurbilgo Udalaren esku geratuko da.

2015eko uztailetik egin bezala, Zubietako Usurbilgo lur eremuan hondakinak atez ate biltzen segiko du Usurbilgo Udalak. Donostiako lur eremuan, orain arte zaborrez gainezka egon izan diren edukiontzia, Irigoien kalekoak eta Errota bidekoak kenduko dituzte, “mantendu egingo dira Irigoieneko eta Araetako merkataritzako bilketa puntuak”. Bigarren Garbitxiki bat eraikiko da Barazar kalean. Egun Etarten bai baitago beste bat. Giltza elektronikoen bidez utzi ahalko dituzte hondakinak gune horretako edukiontzietan. Horrekin batera, Donostia aldean bizi diren zubietarrei hondakinak atez ate biltzeko aukera eskainiko die Usurbilgo Udalak.

Zubietar bakoitzak ordea, dagokion udaleko hondakinen tasa ordaintzen segi beharko du.

Bikoiztasun administratiboak saihestu nahi dira

Donostiako eta Usurbilgo Udalek joan den astean sinaturiko lau urterako hitzarmenak aitortzen du Zubietako bi udalerriren artean zatitua egoteak duen eragina. “Bi udal mugarte horiek bata besteari lotuta daude, ez soilik lurraldeari dagokionez, baita zerbitzu sareei dagokionez ere, eta ez dago funtzionalki eragiten duen mugarik. Horrek hainbat arazo dakartza kudeaketari dagokionez, bai egunerokotasunean bai inbertsioak egikaritzean, baita zenbait tasa eta zerga kobratzeari dagokionez ere. Arazo horiek agerian uzten dute bi entitateen jarduketak ondo koordinatzeko beharra, kostuak eta ahalegina ekonomizatzeko, administrazio publikoen jarduketak zuzendu behar dituen efizientzia printzipioari jarraituz”.

Kudeaketa publikoa eraginkortzeko

Horregatik hitzarmenaren xede nagusia da honako hau da: “antolatzea eta artikulatzea Usurbilgo eta Donostiako udalek beren eskumeneko obrak eta zerbitzuak Zubietako lurraldean egikaritzeko modua, kudeaketa publikoa eraginkorragoa izan dadin eta bikoiztasun administratiboak saihestu daitezen”. Zubietaren eta zubietarren hobebarrez.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

RPS: 28/17

20170
USURBIL



Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA



Nagusia 44, behe LASARTE-ORIA 943 36 61 97

Zubietako eta bertako Herri Batzarra, 2019-2023 legealdi berriari begira

Amaitzear duten 2015-19 legealdiaren balantzea egin eta etorkizunera begira jartzeko bilera irekia deitu zuen Zubietako Herri Batzarra apirilaren 3an Kaxkapen.

Zubietako Herri Batzarra bezalako tokiko erakunde baten beharra duela modu nabarmenean agerian uzten duen aurrepauso garrantzitsu bat eman berrikan ospatu zuten bilkura. Kaxkapeneko hitzordua baino ordu batzuk lehenago sinatu zuten Usurbilgo eta Donostiako Udalek, Zubietako kudeaketa publikoa eraginkortzea ahalbidetuko duen datozen lau urterako (beste lau urtez luzagarria izango dena) lankidetzat hitzarmena.

“Asko kosta zaigu”

Lankidetzat hitzarmen honen beharra eta eskaera Zubietatik eta zubietarrak ordezkatzeko dituen Herri Batzarretik sortu zen aspaldi, eta bi udalekin eginiko lanketa prozesu luzearen emaitza izan da hitzarmen sinaketa. “Asko kosta zaigu hitzarmen hau sinatzea. Duela lau urte hasi ginen kontu honekin”, zioen egungo Zubietako alkate Nartxi Arrillagak, herri batzarreko kideekin batera, zubietarrekin Kaxkapen egin zuten bileran.

Hamaika lorpen

Baina hamaika ahalegin, bilera eta eskaeren ostean lortu dute hitzarmena. Baita gehiago ere, amaitzear duten 2015-19 legealdiaren inguruan egin zuten balantzean plazaratu zuten. Esaterako, goizero ikastetxetara joateko autobusa hartzeko Zubietan zain izaten diren ikasleentzako markesina bat jartzea lortu dute, egun euritsueterako bereziki. Autobusak aipatuta, Foru Aldundiak legealdi honetan autobus zerbitzuetan bide-



Legealdi amaierako bilkura egin zuten apirilaren 3an Zubietako Kaxkapen.

ZUBIETAKO HERRI BATZARRA

**“Asko kosta zaigu
hitzarmen hau sinatzea.
Duela lau urte hasi ginen
kontu honekin”**

ratu nahi izan dituen hainbat murrizketen artean, murrizketok Zubietari ere eragitea aurreikusten zen. Murrizketok saihestea lortu zuten ordea.

Haurren jolastokia, aipatzeko beste proiektu bat. Zubietako Eskolatik sortua. Usurbilgo Udala barrutik ezagutzeko bertara eginiko txango batean, eskolak berak proposatuta gauzatu dena. Zubietako Eskolatik atera gabe, 2017an, urteetako ahaleginen ostean, Zubietak Lehen Hezkuntza osoa eskaini ahal izatea lortu zen. “Ona da herriarentzat. Herria sendotzen du”, haurren arteko harremanak sendotzearekin batera, 12 urte arte

bertan ikasteko aukera izango baitute aurrerantzean.

Frontoiko graden azpialdea txukuntzeko lanak ere bideratu dituzte legealdi honetan. Pilota Elkartek, Jai Batzordeak edota Bertso Eskolak eginiko hainbat baliabideren eskaera bideratu dituzte.

Aipatzekoa, Lanbide Eskolak Zubietako herrirako landu duen energia plan propioa. Eta hemen beste aldea, Zubietan erraustegirako eta gainerako azpiegiturantzako gasa sartzeko lanetan, informazio falta salatu zuten. “Herriari zerbait esan nahi eta zer esan jakin ez”, Zubietako alkateak Kaxkapen zioenez.

Aurrera begira, hilabete eta urteotan Zubietan handituko da, besteak beste, Zubietan gainean eraikiko dituzten azpiegitura guztiekin. Neurri batean, etorkizuneko Zubietan marraztuko dute. Legealdi honetan hain zuzen, 2017an, Emun-ek eskainitako laguntzarekin, zubietarrekin zer nolako herria nahi zuten ezagutzeko iritziak biltzen aritu ziren.

Langile bat kontratatuko da

Zubietarako etorkizuna irudikatzen, lantzen eta bidea eraikitzen joan beharko dute hurrengo urteotan. “Zubietak hazi beharko du, baina nola hazi” erabakitzeke, zubietarren iritzia aintzakotzat hartu, entzunak izateko bertako Herri Batzarrek funtzio ezinbestekoa izango du, horretarako ordea “atzetik herria behar du”. Herriaren babesa eta laguntza.

Egungo Herri Batzarreko kideek batzarkide gisa izandako ibilbidea amaitutzat emango dute legealdi amaierarekin batera. Bertako erakundea dutena berritzeko, maiatzaren

26rako deituak dauden hauteskundeetara hautagai gisa aurkeztera animatu zituzten zubietarrak Kaxkapen. “Lau urte luze egiten dira, baina dezente pozik gara legealdi hnetan egin dugun lanaren emaitzak ikusita”, zioen Itziar Bastarrikak. Egungo kideek, laguntzeko prestasuna adierazi zieten etorkizuneko batzarkide izan daitezkeenei. Babes handiagoa izango dute gainera. Legealdi berriko langile bat kontratatuko da Herri Batzarreko. Kontratazio honek, besteak beste, bi Udalekin izan beharreko hartuemanak eta kudeaketa lanaren arintzea ekarri-

ko du. “Herri Batzarra dinamikoagoa izaten asko lagunduko du”, zioten Kaxkapen. Eta aipatu moduan, lan zama handia kenduko die batzarkide berriei.

Herri izaerari eusteko

Argi ohartarazten zuten Herri Batzarrek duen garrantziaz. Bere jardun gabezia “gure kontra” doa ziotenez. Oroitarazten dutenez, Herri Batzarra da Zubietaren izaera bere osotasunean jaso eta aintzakotzat hartzen duen erakundea. “Herri izaera izan nahi badugu, garrantzitsua” izango da batzarrek bere ibilbideari eustea.

Erraustegia hondakinak jasotzen hastear da

Etenik gabe ari dira Zubietan gainean, dagoeneko leku askotatik begi bistakoa dugun erraustegia eraikitzen. Lanak azken txanpan dituzte jada, ondoko irudian ikus dezakezuenez.

Gipuzkoako Foru Aldundiak finkatua duen egutegia kontuan izanda, aurtengo urrian instalakuntza osoa martxan izatea aurreikusten du. Errauste plantaren exekuzio maila %75ekoa da. Lanak noski, lehenago amaitu nahi dituzte, ekainerako. Ekainetik urrira erraustegia probetan izan nahi dute.

Edozein kasutan, gunea lehenago hasiko da hondakinak jasotzen. Foru Aldundiak dituen aurreikuspenen arabera, apirilean Tratamendu Mekaniko Biologikorako (TMB) planta martxan izango da.

Paraleloki garatzen ari diren lanen bi faseen baitan azpiegiturak eraikitzen ari dira hiru lur-sail ezberdinetan: 31.988 metro karratuko lur eremuan, biometanizazio eta zepentzako plantak; bestean, erraustegia eta tratamendu mekaniko-biologikorako plantak; eta hirugarrenean "Naturklima".

OET-ren ikerlan berriak

Hainbat azterlan argitaratzen segitzen du Osasuna eta Errausteketa Ikerketa Taldeak astero sare



Zubietako erraustegia 2019ko martxoan zuen itxura.

ERRAUSTEGIA

Foru Aldundiaren aurreikuspenen arabera, apirilean Tratamendu Mekaniko Biologikorako planta martxan izango da

sozialen bidez. Italiako 2014ko azterlan batean, PM10 partikuletara esposizio altuagoa izan zutenek bihotzeko gaixotasunak %18 eta gernubideetako gaixotasunak %21 hazten zirela ohartarazi zuen. 2016ko Italiako beste ikerlan batean, erraustegiaren eta garaiz aurreko erditzeekin lotura aurkitu zuen.

Murtzian, haurren bizi kalitatearen inguruan 1998-2015 urte artean egindako beste ikerlan batek, minbizia eta

bertain duten erraustegiaren arteko balizko lotura bat badela agerian uzten du, azterlan honen egileek lotura hau guztiz frogatzeko ikertzen segitzeko borondatea agertzearekin batera.

Hitzaldia Hernanin

Abel Arkenbout Holandako ToxicoWatch fundazioko toxikologoak "Dioxinak Holandako Halingenen-Dioxinak Zubietan? Honela kutsatzen dute erraustegi modernoek" hitzaldia eskainiko du larunbatean (apirilak 13), 10:00etan Hernaniko Biteri kultur etxean. Erraustetaren Aurkako Mugimenduak eta Hernanin Zero Zaborrek antolatutako hitzaldia ingelesez eskainiko da, baina aldi berean euskarara itzulua izango da.

Kexuak, usain txarra tarteko

Ez du etenik kirats usainak, bereziki Atxegalde inguruan. Aurreko astean zehar, hainbat egunez nabarmendu dute usain txarra. Egundako batean gainera, udaltzaingora deitu zutela jakinarazi du "Xingola" herriko Twitter erabiltzaileak. Kiratsaren jatorria, urte luzez herritar batek baino gehiagok adierazi moduan, Osinalde industriagunean kokatzen dute.



San Marko Mankomunitateko 2017ko aurrekontuak ere baliogabetuak

2014, 2015 eta 2016an gertatu bezala, San Marko Mankomunitateko 2017ko aurrekontuak ere baliogabetu egin ditu Euskadiko Auzitegi Gorenak, eta honenbestez, arrazoi eman die Usurbil, Hernani eta Oiartzungo Udalek aurrekontuon aurrean aurkezturiko helegiteei.

Laugarren baliogabetzea

Euskadiko Auzitegi Gorenak laugarren urtez jarraian arrazoiak eman die Usurbil, Oiartzun eta Hernaniko Udalei, eta 2014, 2015 eta 2016an egin bezala, San Marko Mankomunitateko 2017ko aurrekontuak ere baliogabetu egin ditu. Urteak daramatzate, udalok mankomunitateko aurrekontuen aurkako helegiteak aurkeztzen. Hiru udalerriotan atez atekoa dago indarrean, eta halere, baliatzen ez duten edukiontzien sistemagatik ordaintzea eskatzen zieten San Marko Mankomunitateko EAJ eta PSE-ko agintariek. Mankomunitateak atez ateko bilketa indarrean duten herriei partekatzen ziotuen, edukiontzien sistema baliatzen zuten gainerako herrien gastuak.

Jaso gabeko zerbitzuengatik ordaintzen

Honenbestez, hondakinak gaika gehien biltzen dituzten udalerriek (Usurbil, Hernani edota Oiartzun) gehien ordainarazi zaie urteotan, baliatu ez dituzten zerbitzuengatik. Nabarmen gutxiago birziklatu eta gutxiago ordaindu dute aldiz, edukiontzien sistema indarrean izan duten herriek.



SAGARDOTEGIA
aginaga

URTE OSOAN
ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA
TXOTXETIK!
ORAIN, BERTAN LOTAN
GELDITZEKO AUKERA!
ASTELEHENETAN ITXITA

943 36 67 10

Hotela

info@aginagasagardotegia.com www.aginagasagardotegia.com

Tapa eta aurkibideak prest



Agur esan diogu 2018 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2018ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, **Lizardin** edota **Lauroken** egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.



ORIANTE
Institutua

ESKAERAK

On-line
2019ko maiatzaren
2tik 13ra arte

Ikastetxean
2019ko maiatzaren
2tik 14ra arte



Zientziak eta
Teknologia



Giza eta
Gizarte Zientziak

2019-2020
IKASTURTEA

Onarpena
Batxilergoa



Publikoa

www.oriarte.eus

Ekainaren 9ko eskola txikien festari begira, bazkaria eta argazki erakusketa Aginagan

Ekainaren 9an Aginaga Gi-puzkoako Eskola Txikien jai gunea izango dugu. Bertako hezkuntza komunitatea antolaketa lan betean da jada, eskola txikien arteko hartue-manak sendotu eta herri bateko zein besteko errealitateak plaza-ratzeko ezin aproposagoa izan ohi den urteroko jaialdiko non-dik norakoak lotzen.

Girotzen hasteko, eskola txikien festa eguna baino bi aste-buru lehenago, maiatzaren 25erako hain zuzen, Aginagako hezkuntza komunitateko egungo eta atzoko kideak batu nahi dituzte bazkari baten bueltan. Egungo nahiz Aginagatik pasatako ikasle, irakasle, herritar eta gurasoak. “Zuek dakizuen bezala, eskolak dira gure herri txiki eta auzoetako bihotza. Aginagako eskola txikiak taupada bizian jarraitzen badu urte luzez eta osasuntsu mantentzen bada, zati handi batean zuei esker da”, gogorazten dute eskolatik.

Txartelak salgai

Esker on hori adierazteko zer hobeto denak bazkari baten bueltan biltzea baino. Hor-txe beraz gonbita. Maiatzaren 25ean, “denok elkartzeko eguna izatea nahi dugu”. Urte



Aginagako Eskolako haur eta hezitzaileek berriki NOAUA! K.E. ezagutzen izan ziren. Ostegunean (apirilak 11) 15:00etan Korrika Txikia ospatuko dute eskolan.

guztietako hainbat une irudikatzen dituzten argazki historikoen bilduma osatzen ari da San Praixku Guraso Elkarteak. Maiatzaren 25ean, “denok batera kontu zaharrak gogora ekartzeko”. Zuetako inork Aginagako Eskolari lotutako argazki zaharrik balu, aginaga@eskolatxikia.org helbidera bidali edo guraso elkarte-kideren bati emateko gonbita luzatu dute.

Argazki erakusketa ireki eta bisitatu ostean, aipatu moduan

bazkaria antolatu dute Aginaga Sagardotegian. “Animatzen zaituztegu denoi parte hartze-ra”. Bi menu izango dira auker- ran. Helduenean, mixta entsa- lada, bakailao tortilla, txuleta patatekin, gazta, menbrilloa, intxaurrek eta kafea izango dira, 26 euroren truke. Umee- nean kroketak, oilasko izterra patatekin eta izozkia, 13,50 euroren truke.

Bazkaritarako txartelak Arra- te tabernan izango dira salgai maiatzaren 3ra arte.

Eskola Kiroleko topaketa

Zirimarak beste herrie- tako ereduak ezagutu eta esperientziak partekatze- ko topaketa antolatu zuen apirilaren 3an Potxoenean. Eskola Kirolaz hausnartu zuten, Gipuzkoako 15 bat herrietako egitasmo haue- tako ordezkariak. Guztiak bat zetozen, eredu aalda- tu eta berritzeko ideiare- kin edota indarrean dena auzitan jarri zuten. Gogoan izan, Usurbilen aurten abiatu dela Zirimara esko- la kiroleko proiektu erabe- rritua Ikastola, Udala eta NOAUA!ren eskutik.



Zirimarak apirilaren 3an Potxoenean antolaturiko topaketa.

21. Korrikaren aurretik, Korrika Txikia

21. Korrika Usurbila heltze- ar da! Ostiralean 14:24 aldera sartuko da Aginagako Mapile- tik. Aurrez Korrika Txikia ospatuko du Udarregi Ikastolak. Herriko puntu ezberdinetatik, Kalezar nahiz Santuenea aldetik abiatuko diren hiru Korrika zutabe abiatuko dira 11:30etan. Ikasle eta irakas- leek osatuko dituzten hiru zutabeok frontoian elkartuko

dira gero, guztiek parte har- tuko duten amaiera ekitaldian.

Hiru Korrika saio frontoira

■ 11:30 Santuenea (LH6B), Bizkarre (LH4), Antxeta taberna (LH2), Bordatxo taberna (HH3), frontoia.

■ 11:30 Haur Eskola (LH6A), Olarrondo sarrera (LH5), Atxe- galdeko Karobi (LH3B), Gaztele- kua (HH5 urte), frontoia.

■ 11:30 Kalezarreko aldapa (LH3A), Labe Txiki (LH1), Patri (HH4 urte), frontoia.

■ Amaiera ekitaldia frontoian:

-Lekukoaren mezua irakurtzea.
-“Guk euskaraz”, “Euskalduna euskaraz” eta “Aberriaren mugak” abestiak kantatzea.

-“Klika” koreografia dantzatu.

-Amaiera trikitilariak.

■ Antolatzailea: Udarregi Ikas- tola.

Hainbat etxeetan lapurtzen aritutako taldea antzeman dute

Harridura eta kezka eragin zuen duela bi aste, Usurbilen izandako istripu batek. Puntapax kalean gertatu zen, Dia saltokitik hurbil dagoen bidegurutzean. Auto batek furgoneta baten aurka jo zuen. Istripu haren nondik norakoak argitu ditu Ertzaintzak. Prentsa ohar bidez jakitera eman duenez, Citroen C-4 markako autoko kideak ihesi zihoazen eta ihesaldian, ondoko argazkian ikus daitekeen istripua izan zuten.

Auto barruan hiru lagun zihoazen, Ertzaintzaren esanetan, Asturias, Kantabria, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroako landa eremuko hainbat etxebizitzetan lapurtzen aritzen zen talde bateko kide izatea egotzen zaie.

Taldeari 2018ko urrian hasi eta 2019ko martxora arte indarra baliatuz aipatu herrialde guztietako etxebizitzetan 10 lapurreta egitea egotzen die Ertzaintzak, 16 ibilgailu ostea baita Usurbilen, Larraulen, Elduaenen, Legazpian, Mutiloan eta Oreretan Gipuzkoan. Nafarroako Beran, Oitzen, Saldiasen, Zubietan, Lesakan, Eulaten eta Akai Arakilen. Eta Arabako Arraia-Maeztun baita.

Ikerketa zabalik

Usurbilgo atxilotetaren unean, hiru lagunok baliatzen ari ziren Citroen markako autoa ere Nafarroan lapurtu eta Usurbilen aparkatua zegoen ibilgailua zen. “Ibilgailuaren presentzia bost egun lehenago antzeman izan zen eta ordutik zaintzapean zegoen”, Ertzaintzak berri eman duenez.

Joan den astean, hiru lagunok Usurbilen aparkatua zegoen ibilgailura sartzen ahalegindu zirenean, Ertzaintza geldiarazten ahalegintzean, jasotako aginduei kasurik egin ez eta abia-



Martxoaren 26an Puntapax kalean izandako istripua. Argazkiaren egilea: Ertzaintza.

ATXILOKETA

“Ibilgailuaren presentzia bost egun lehenago antzeman izan zen eta ordutik zaintzapean zegoen”

dura handiz ospa egin zuten bertatik, kontrako norabidean. Zenbait herritarrek hurbiletik ikusi eta bizi ahal izan zuten unea. Hainbat maniobra arriskutsu egin ostean gertatu zen Puntapax kaleko istripua. Istripua gertatuta, autoko hiru lagunek ihes egin zuten. Taldeko burutzat jotzen dutena atxilotu zuen Ertzaintzak. Martxoaren 28an, epailearen esku lehenbizi eta kargupean aske utzi zuten behin behinean gero. Ikerketak zabalik segitzen du, Usurbilen atxilotu zuten talde buruarekin ziren beste bi lagunak atxilotu eta epailearen esku uzteko.

Ez zen lehen aldia

Ertzaintzak berri eman duenez, 2013. urtean zehar eginiko ikerketa baten baitan, indarra baliatuz Hego Euskal Herriko nahiz, Kantabria eta Asturiaseko landa eremuko etxebizitzetan 130 lapurreta egindako talde bat desegin zuen. Lapurreta hauek egiteko autoak ostu zituzten, gerora arrazoi ezberdinegatik nonbait utzi eta bes-

te batzuk lapurtzen zituzten, normalean aurreko autoak uzten zituzten lekuetatik hurbil. Hala, gerora berreskuratu ahal izan ziren 28 auto lapurtu zituzten garai hartan.

2014an berriz ere atxilotua izan zen taldea. Orduko hartan, indarra baliatuz 58 lapurreta egitea egotzi zitzaizen eta gerora berreskuratu ahal izan ziren 12 auto ostea.

Gerora, taldeak ia ez zuen apenas lapurretarik egin 2016an eta 2017an berriz jardunean hasi ziren arte. Urteotan, bereziki Arabako mendialdean aritu ziren lapurretan, baita Nafarroan, Kantabrian eta Asturiasen.

Horren aurrean, ikerketa berriak burutu zituen Ertzaintzak eta 2017ko maiatzaren 26an Nafarroan egin zituzten hiru lapurreta argitu zituzten, lapurtutako hainbat objektu eta auto berreskuratzearekin batera. “Zifra hauek talde honek egindako delituen isla dira”, Ertzaintzaren esanetan.

Ekintza guztion taldeko burua 47 urteko gizonezko bat da, Ertzaintzaren polizia operazio guztiotan atxilotua izan dena. 2017ko atxilotetaren ostetik, 2018ko urrira arte etenaldia hartu zuen taldeak. Ordutik aurtengo martxora arte, jardunean aritu dira berriz, joan den asteo Usurbilgo istripua jazo arte.

Hildako bat moto istripuan

65 urteko usurbildar bat hil zen moto istripuz apirilaren 2an Lasarte-Orian. N-1 errepidean izan zuen istripuan furgoneta baten aurka talka egin zuenean. Beste bi motorzale zauritu ziren.

Errenta aitortzeko garaia

Diru kontuak argitzeko garaia hemen da. Adi datei:

-Apirilak 8-uztailak 1: autolikidazio proposamena jasotzen baduzue, hura onartzea.

-Apirilak 12-ekainak 8: errenta mekanizaturako hitzordua eskatzea (autolikidazio proposamena jaso baina onartu nahi ez dutenek apirilaren 17tik).

-Apirilak 15-uztailak 1: errenta mekanizaturak eta Internet bidezko aitortpena onartzea.

Euskaraz tramitatzeko deia

Urtero moduan, Ogasunarekin diru kontuak euskaraz argitzeko izan beharreko hartuemanak eta tramitazioa euskaraz bideratzea gonbidatzen gaituzte Usurbilgo Udala kide duen Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatetik (UEMA). Iaz 3.208tik 920 errenta aitortpen euskaraz bideratu ziren Usurbilen, gainerako 2.288ak erdaraz. Gorantz doa kanpaina hau euskaraz egitea hautatzen duten herritarren kopurua. 2008koan 494 izan ziren, 2009koan 544, 2010ekoan 591, 2011koan 635, 2012koan 681, 2013koan 728, 2014koan 769, 2015ekoan 872, 2016koan 893 eta 2017koan 920.

■ Informazio gehiago: gipuzkoa.eus/ogasuna 943 113 000

Ahobizi eta Belarriprest guztiei euskararen alde Klika egiteko deia, badatorren 21. Korrikan

Badator “Klika” egiteko garaia! Badator 21. Korrika! Ostiralean helduko den euskararen aldeko martxarako girotua dago jada herria. Igandean esaterako, aurreko 20 Korriken abestien errepaso musikala egin zigun Usurbilgo Artixten Taldeak Sutegi aretoan eskaini zuen hitzaldi musikatuan. Korrika Batzordeak antolaturiko ekitaldia Ugaitz Agirrek gidatu eta herriko musikariok parte hartu zuten; Luken Arkarazok, Natalia Izagirrek, Jokin Irastorzak, Beñat Urteagak, Ixak Arrutik, Mikel Alkortak eta Korrikako abesti historikoetako bat musikatu zuen Joseba Tapiak! Haien guztien eskutik, Korrikaren lau hamarkadotako bilakaera azaldu ziguten; abestiek, abestietako mezuek, musika estiloek izandako bilakaera.

Abestiotako batzuk entzuteko aukera izan genuen, baina herrian sortzaile talde aparta izanik, denok gure oroitzapenetan ondo gordeak ditugun Korrikako beste hainbat kanta zuzenean jo zizkiguten.

Ahobizi eta Belarriprest jokamoldeak hartzeko deia

Korrikan ez gaitezen ahanzi Euskaldiaz, hortxe ekimen hau iaz sustatu eta 2020rako ediziora begira den herritarren batzordetik luzatu duten gonbita. Azaroaren 23tik abenduaren 3ra, “ezagutu genituen “ahobizi” eta “belarriprest” jokamoldeak. Horien bidez, norbanakoen hizkuntza-ohituren aldaketa sustatu genuen. Usurbildar asko batu ginen ekimenera, eta gure eguneroko hizkuntza-harremanak lantzen aritu ginen”.

Erronka errepikatzen animatzen gaituzte bidean datorren 21. Korrikan. “Klika” aukeratu dute lelo, eta jarrerak aldatzea jarri dute helburu:



21. Korrika girotzeko aurreko 20 Korriken abestien inguruko hitzaldi musikatu aparta eskaini zuten apirilaren 7an Sutegin, Usurbilgo Artixten Taldeko kideek. Hainbat kanta zuzenean jo zituzten.

alegia, euskararen alde “klik” egitea”. Euskaldian egin bezala, “Korrika une aproposa da euskarazko hizkuntza-praktikak zabaltzen jarraitzeko, aldatutako ohitura horiei eutsi eta euskarazko harremanak zaintzeko. Horretarako, Usurbilgo Euskaldia batzordeak dei egiten die usurbildarrei Ahobizi eta Belarriprest rolak berreskuratzeko. Ikurrekin eta haien portaerarekin hizkuntza-ohituren aldaketa ikusaraz dezagun! Batu Korrikara usurbildar! Iaz ekindako hizkuntza-ohituren aldaketarekin jarraitu eta ez utzi KLIKA

egiteari! Euskara, gure hau-tua!”. Hortxe Euskaldikoen gonbita.

Korrika Astea Apirilak 8-12

■ Susana Martinen Zirriborro tailerreko haurrek 21. Korrikaren inguruan sortutako marrazkien erakusketa Sutegin.

Apirilak 12, ostirala: Korrika Eguna

■ 11:30-12:30 Korrika Txikia Udarregi Ikastolan.

■ 14:24-15:33 21. Korrika Aginagako Mapiletik Zubietako hipodromoko zubiraino.

■ 17:00 Txokolatada plazan.

■ Ondoren, herriko gazteek Olinpiadak egingo dituzte.

■ Oharra: bertan behera geratu da ostiraleko Jon Sarasuaren “Iturri bati begira. Joxan Artzeren interpretazio bat” 19:30etako emanaldia. Sarre-rosia baduzu, euskaltegi-joan eta dirua itzuliko zaizu.

■ Antolatzailea: Korrika Batzordea.

Apirilaren 14ra arte

Korrika 24 ordu zuzenean noaueus ataritik, euskarazko hedabideen arteko elkarlanari esker.

Lekukoa eskuz esku

Zenbait datu eguneratuta, hemen 21. Korrikako lekukoa nork eta nondik nora eramango duen:

■ 2034. km, 14:24:13 Mapilen: Gipuzkoako Eskola Txikiak.

■ 2035. km, 14:30:13 Aginagako bus geltokian: Aginagako Jai Batzordea.

■ 2036. km, 14:36:13 Lasao etxean: Elhuyar.

■ 2037. km, 14:42:43 Usurbilgo Udala.

■ 2038. km, 14:49:13 San Inazio bus geltokian: EH Bildu. Pello arrandegian: Orbeldi D.T.

■ 2039. km, 14:55:43 Pikaolan: NOAUA! Kultur Elkartea.

Lurda mertzeria: Ta puntu.

■ 2040. km, 15:02:13 Ingemar parean: Gure Esku Dago.

Santueneko zubian: Santueneko jai-batzordea.

■ 2041. km, 15:08:43 Amiri baserri aurretik: Udarregi Ikastola.

■ 2042. km, 15:15:13 Artzabaleta ostean: Fagor Ederlan.

■ 2043. km, 15:21:43 Larraitx etxe aurretik: Zubietako Herri Batzarra.

Zubietako Eskolan: Zubietako Eskola.

■ 2044. km, 15:27:43 Araetako bus geltokia: Lanbide Eskola.

Dantzari gaztetxoak eta Larrian Gozo, 7. Dantza Eguneko berrikuntzak



Orbeli Dantza Taldeko kideak, larunbat gaueko herri emanaldiko azken entsegu saio orokorra egin ostean atera zuten talde argazkian.

Dantzarien plaza izango dugu Usurbil larunbat honetan, Orbeldikoen eskutik. Helduena, baina baita aipatzekoa aurten, gaztetxoena ere. Estreinakoz Dantzari Txiki Topaketa antolatu baitute. Batetik, eraikitzen doazen Orbeldi eta beste dantza talde batzuen hartuemanak sendotzeko, baita dantzari gaztetxoaren arteko hartuemanak ere, eta adin tarte honetan dauden dantzaera ezberdinak erakusteko ere.

Egunpasa borobila antolatu diete Orbeldikoei, etxekoei nahiz Usurbila bisitan datozen dantza talde gaztetxoei. Eguerdian Udarregi Ikastolan bilduko dituzte ezagutza joko batzuen bueltan, gero bisitariak herriko elkarte eta hainbat etxeetan bazkaltzeko aukera izango dute eta arratsaldean topaketa; argazkia, kalejira eta emanaldia frontoian. “Hau izan dadila abiapuntua baita hemengoa beste leku batzuetara eramateko”, Orbeldikoen esanetan.

Orbelditik iragarri digutenez, dantzari gaztetxoekin uda partean inguruotako festetan eskaintzen dituzten emanaldien ohiko eskema hautsiko du larunbateko topaketak. “Herri bakoitzean bere dantzak egiten dituzte. Gainera, adin tarte ezberdinak nahasian ariko

ORBELDI D.T.

Egunpasa borobila antolatu diete Orbeldikoei, etxekoei nahiz Usurbila bisitan datozen dantzari gaztetxoei. “Hau izan dadila abiapuntua baita, hemengoa beste leku batzuetara eramateko”, adierazi dute Orbeldi D.T.-tik.

dira dantzan. Beste motibazio bat haientzat helduagoei dantzan aritzea”. Etxeko dantzariei begira, Usurbilen duen dantzari harrobiaren erakusleho ederra izango da topaketa.

Estreinako edizioa dute honakoa, ez aldiz helduetan. Helduen dantzari topaketa laugarren edizioa heldua baita. Esperientzia ezinhobeia izan du Orbeldi topaketa honekin. “Ondo pasatzen dute. Elkar ezagutzeko ondo etortzen da”. Dantza egiteaz gain, Dantza Egunaz, Usurbilez gozatzeko baliatzen dute hitzordua bisitariak.

“Herri lan handia”

Hitzokina definitu diote NOAA!ri Orbelditik, Dantza Eguneko une gorenena izan ohi den gaueko ikuskizunaren

atzean dagoen lanketa. “Tipi Tapa Pub” izena du aurtengoak. Xehetasun handirik ezin dizuegu aurreratu, baina bai Ugaitz Agirrek zuzendu eta berak sortu duela emanaldiko istorioa. Iaz bezala, herriko dantzariekin batera, bertako musikari eta antzezleak batuko dituela hitzordua. Eta Orbelditik beste pista bat ere eman digute. “Dantza Eguneko ikuskizunari keinu bat egin genion aspaldi!”, oroitarazi digute.

Goizaldera arte festa

Eta adi emanaldi osteari, herri ikuskizuna amaitzearekin ez baitira bukatuko ospakizunak. Aurten estreinakoz, dantza giroa goizaldera arte izango dugu Larrian Gozo herriko erromeria taldekoekin. “Dantza taldetik pena ematen zigun ikuskizuna amaitu eta ezer ez egoteak. Aurreko edizioetan dantza gidatuen saioa genuenez, pena ematen zigun erromeria giro hau egitarautik kentzeak”, eta aurten, gauerditik aurrera aurkitu diote lekua. “Ikuskizuna bukatu eta berehala hasiko da Larrian Gozo. Jendea bertan geratzea espero dugu”, hortxe beraz Orbeldikoen gonbita. Dantzarien ikuskizuna amaitu bezain laster ez mugitu frontoitik, dantza giroa goizaldera arte izango baita!

Zazpigarrena, inoizko Dantza Egun luzeena

Goizetik goizaldera luzatuko da, Orbeldikoei aurtengorako txertatu dituzten berrikuntzekin. Bi nagusiki; estreinakoz, haur dantzarien topaketa antolatu dute arratsalde parterako, eta gauerditik aurrera, Larrian Gozokoekin dantza giroa goizaldera arte!

Apirilak 13, larunbata

IV. Dantza Taldeen Topaketa

■ 10:30 Dantza taldeei harriera frontoian:

- Erketz (Lasarte).
- Ortzadar (Iruñea).
- Monteagudoko Danzanteak (Monteagudo).
- Orbeldi (Usurbil).

■ 11:30 Argazki ofiziala udaletxean.

■ Kalejira herrian barrena.

■ 12:30 Emanaldia frontoian.

■ 14:00 Bazkari herrikoia Udarregi Ikastolako jangelan. Sarrerak Artzabalen eta ostegunetan 19:00-21:00 artean Oiardo Kiroldegiko dantza gelan salgai.

I. Dantzari Txiki Topaketa

■ 16:00 Elkartzea Potxoean:

- Egape (Urnieta).
- Haurtzaro (Oiartzun).
- Erketz (Lasarte).
- Urki (Andoain).
- Herri Ametsa (Donostia).
- Orbeldi (Usurbil).

■ 16:45 Argazki ofiziala udaletxean.

■ Jarraian, kalejira herriko kaleetan zehar.

■ 18:00 Emanaldia frontoian.

eta eguna bukatzeko...

■ 22:30 “Tipi Tapa Pub” ikuskizun herrikoia.

■ 00:00 Erromeria Larrian Gozo taldearekin.

■ Antolatzaileak: Orbeldi D.T. eta Usurbilgo Udala.

6 diputatu eta 4 senatari bozkatzeko aukera

Apirilaren hamabigarren honetatik, hilabeteko tartean izango dugun bi hauteskunde deialdietan lehenengorako kanpaina betean murgilduko gara bi astez.

Gogoan izan, Espainiako Gorteetako hamabigarren legealdia berea egin du. Erakundeok berri eta datorren legealdia begirako hauteskundeak izango ditugu hilaren 28an.

12 alderdi politiko aurkeztu dira Gipuzkoatik Madrilgo Diputatuen Kongresua eta Senatu berritzeko deialdi honetara: EHBildu, EAJ, PSE-EE, PP, C's, Recortes Cero-GV, PCTE, Podemos-IU-Equo, PACMA, VOX, "Escalaños en Blanco-Aulki Zuriak" eta PUM+J.

Sei diputatuek ordezkatzeko dute Gipuzkoa Espainiako Kongresuan. Lau senatariak Senatuan. Kongresurako 12 hautagai zerrendetatik bat hautatu ahal izango da. Senatuaren kasuan,

bozkatzeko modua aldiz ezberdina izan ohi da. Deialdiak aurkeztutako 12 alderdietako hautagai bat, bi edo hiru aukeratu ahalko dira. Denak alderdi berekoak, edo desberdinetakoak.

Bozkatzeko tokiak

Apirilaren 28an, 9:00etan hasi eta 20:00ak arte irekiko dira hauteslekuak. Goizeko 8:00etarako egon beharko dute martxoaren 28ko udalbatzaren ezohiko osoko bilkuran egin zen maikideen zozketan hautaturiko 72 herritarrek. Guztira, 8 mahai egokituko dira guñeotan: Kalezarreko Haur Eskolan, Zubietako Lanbide Eskolan (Zubietan bizi diren Usurbil aldeko usurbildarrentzat. Zubietako Donostia aldean bizi direnek Eskolan bozkatu beharko dute), Santuenea Auzo Elkartean, Aginagako Eskolan eta Udarregi Ikastolan. Ondo begiratu, etxean asteotan jasoko duzuen errolda txartela-



Apirilaren 28ko hauteskundeetako emaitzak noaueus eta sare sozialen bidez jakinaraziko ditugu egunean bertan, eta maiatzaren 3ko aldizkarian.

ri, bertan adieraziko zaizue non bozkatzeko dagokizuen.

Posta bidezko bozka

Apirilaren 28an bozkatzetik ez baduzue, lehenago, posta bidez eman ahalko duzue botoa. Hilaren 18ra arte eskatu ahal duzue posta bidez bozkatzeko Correoseko bulegoan. Hala eginez gero, beharrezko dokumentazioa apirilaren 18tik 21era jasoko duzue eta hilaren 24ra arteko epea izango duzue posta

bidezko botoa eta dokumentazioa Correoseko bulegoan aurkezteko.

Hautagaiei elkarrizketak

Aurreko hauteskunde deialdietako irizpideari jarraiki, Usurbilgo Udalean ordezkariak duten hiru alderdietako (EHBildu, EAJ, PSE) Espainiako Kongresurako Gipuzkoako hautagaiak elkarrizketatu ditugu aldizkari honetan. Ondoko orrialdeetan dituzue elkarrizketak.

Herritar bana, Kongresu nahiz Senaturako hautagaitza zerrendetan

Hamabi alderdi politiko aurkeztu dira Espainiako Gorteak berritzeko apirilaren 28ko hauteskundeetara. Segidan dituzue zerrenda guztietako lehen bi hautagaien izen abizenak. Hautagaion artean bi herritar. Kongresuen diputaturako Gipuzkoako EHBildu koalizioa zerrendaburua izango da. Meritxe Aizpurua Arzallus Usurbilgo alkate ohia eta "Escalaños en Blanco-Aulki Zuriak"-ek Senaturako aurkezturiko zerrendan hirugarrena, Luismari Ormaetxea Santsiñena, EA eta Hamaikabateko zinegotzi eta alkate ohia.

DIPUTATUEN KONGRESUA EHBildu

1-Mertxe Aizpurua Arzallus.
2-Jon Iñarritu García.

EAJ

1-Joseba Andoni Agirretxea Urresti.
2-Iñigo Barandiaran Benito.

PSE-EE

1-Odón Elorza González.
2-Mª Luisa García Gurruchaga.

PP

1-Iñigo Arcauz Ascargorta.
2-María Pilar Elías Zabala.

C's

1-León José de Adrián Gallego.
2-Isabel Gil Marrodán.

RECORTES CERO-GRUPO VERDE

1-Mª Ángeles Alberdi Bergareche.
2-Roberto Gómez Egido.

PCTE

1-José Alberto Jiménez González.
2-Laura Vázquez Martínez-Jáñez.

PODEMOS-IU-EQUO

1-Pilar Garrido Gutiérrez.
2-Rafael Sainz de Rozas Bedialauneta.

PACMA

1-Iván Ruiz García.
2-Itziar Gavilán Cárcamo.

VOX

1-Juan de Dios Dávila Garijo.
2-Mª Begoña García Conde Castillo.

ESCAÑOS EN BLANCO (EB)

1-Daniel Lizarralde Aguirre.
2-Nerea Icuza Campos (Independentea).

PUM+J

1-José Manuel Corcuera Miranda.
2-María Rosario Alonso Amigot.

SENATUA

EHBildu

1-Gorka Elejabarrieta Díaz.
2-Olaia Duarte López.

EAJ

1-Maria Isabel Vaquero Montero.
2-María Mercedes Garmendia Bereciartu.

PSE-EE

1-Maria Arrate (Miren) Gallastegui Oyarzabal.
2-Lucio Hernando Albistegui.

PP

1-Alejandro Sáenz Muriel.
2-Cristina García Salinas.

C's

1-Rocio Galiana Naranjo.

2-Javier Ignacio Estévez Videira.

RECORTES CERO-GV

1-Jordi Martínez Rigol.

PCTE

1-Jakes Iñarra Lasagabaster.

PODEMOS-IU-EQUO

1-Javier Ezkerekotza Pajares.
2-Nagore Basurto Escamilla.

PACMA

1-Maria Pilar Julia Otegui Serrano.
2-Juan Manuel Hernández Lallén.

VOX

1-Carlos María Bel Clerico.

ESCAÑOS EN BLANCO (EB)

1-Luis García Molina.
2-María Cruz Pascual Sánchez (zerrendan hirugarrena, Luismari Ormaetxea Santsiñena).

12. PUM+J

1-María Rosario Elcuaz Viscarret.

EHBildu: “Euskal Herriaren interesak defendatuko direnaren berme nagusia izango da EHBildu”

NOAUA! Espainiako Gorteetako ordezkariak aukeratu behar dira apirilaren 28ko hauteskundeetan. Zuen alderdiak ordezkariak lortzen badu, zeintzuk izango dira defendatu eta bultzatuko dituen egitasmo nagusiak?

Mertxe Aizpurua Arzallus:

Hauteskunde hauek oso tesuinguru berezi batean datoz. Estatu espainiarra egiturazko krisi larri batean murgilduta baitago. Krisi horren aurrean, Estatuko botere faktikoek eta hiru eskuinek (PP-Cs-Vox) demokraziaren aurkako inboluzio bat abian jartzea erabaki dute. Beraien programa argia da: eskubide nazionalak ukatzea (gure autogobernu txikia kolokan dago), eskubide sozialen murrizketak (nagusiki emakume eta etorkinei kalte eginez) eta lan-eskubideen murrizketak. Hainbat belaunaldiren borroka eta esfortzuari esker irabazitako eskubideak kolokan daudela esan dezakegu.

Espainiako eskuinek inposatu nahi diguten inboluzio antidemokratikoari aurre egiteko ahaleaginean amore ez emateko eta beste zenbait indar politikok (PSOE) ezarri nahi luketen “status quo” baldintzatzeko. Azken horien helburua, eskubide ekonomiko eta sozialetan atzera ez egitea izango litzateke, baina estatu espainiarrak behar duen demokratizazioan inolako aurrerapenik egin gabe. Honen aurrean, lan ildo nagusi batzuk aurrera eramango ditugu: autodeterminazio-eskubidea, preso politiko, errefuxiatu eta deportatuak etxeratzea, austerizidio eta murrizketa politikei amaiera ematea, eta atzerapauso bat ere ez onartzea berdintasun-politikan eta emakumeen eskubideen murrizketetan. Euskal



Espainiako Kongresurako Euskal Herria Bildu koalizioaren Gipuzkoako zerrendaburua izango da Mertxe Aizpurua Arzallus.

EHBILDU

“Lehen aldiz, Estatuan elkarrekin bizi diren herrietako ezkerreko subiranistek indarrak batuko dituzte elkarlanean aritzeko”

Herriaren interesak defendatuko direnaren berme nagusia izango da EHBildu Madrilgo Kongresuan. Gainera, hau guztia aurrera eramateko Estatuko ezker soberanista eta aurrerakoiekin garrantzia handiko

akordio estrategiko bat lortu dugu, jauzi kualitatibo handi bat suposatzen duena. Lehen aldiz, Estatuan elkarrekin bizi diren herrietako ezkerreko subiranistek indarrak batuko dituzte elkarlanean aritzeko, eta, ildo horretan, alderdien logika urratuko dugu, gure herrietako interesak hobeto ordezkatzeko.

Zer nolako balantzea egin dezakezue amaitu berri den legealdiaz, eta zer nolako aurreikuspena hauteskunde ostean datorrenaz?

Amaitu den legealdi hone-

tako fruituak jasotzen ari gara jada. Lan horren ondorioz, ezkerreko subiranisten arteko gutxienekoen akordioa eta oinarri politikoak adostu ditugu.

Hauteskundeen emaitzei begira, ziur gaude babesa jasoko dugula. Estatu espainiarretik datorren erasoaren aurrean, EHBildu funtsezkoa izango delako goranzko joera hartu duen frankismoak boterera iristeko aukerarik izan ez dezan.

Baina berdin jarraitzeko ezer ere ez aldatzea nahiko lukeen gobernu bat ere baldintzatuko dugu.

EH Bildu izango da euskal agenda soziala Madrilgo Espainiako Kongresura eta Senatura eramanez eta bertan aldarrikatuko duen indarra. Orain arte alderdi politiko bakoitzak bere interesak baino ez zituen defendatzen Madrilan, baina ziklo hori amaitu da. Madrilgo kromo-aldaketen garaia bukatu da.

Ezkerreko subiranistok elkarlanean jardungo dugu Madrilan, ondo koordinatuta, jendearen bizi-baldintzak duin bihurtzeko helburuarekin, eta horretarako ezinbestekoa da pentsioak hobetzea, lan-baldintza duinak hobetzea, etxebizitza duin bat eskuratzeko baldintza batzuk bermatzea, Mozal Legea eta oinarritzeko eskubideen beste urraketa guztiak desagerraraztea, emakumeek pairatzen duten soldata-aldeari amaiera ematea, gerratik eta gosetik ihesi gure herrietara iristen direnei tratatu duin eta humanitario bat ematea.

Hau da, pertsonen duintasunez bizi daitezen benetako beharrak asetzea suposatzen duen guztiaren alde egingo dugu.

EAJ-PNV: “Guk irmo jarraituko dugu gurea defendatzen, erabakiorrak izaten, erronka berriei irmo erantzuten”

NOAUA! Espainiako Gorteetarako ordezkariak aukeratu behar dira apirilaren 28ko hauteskundeetan. Zuen alderdiak ordezkariarik lortzen badu, zeintzuk izango dira defendatu eta bultzatuko dituen egitasmo nagusiak?

Joseba Agirretxea Urresti: Gure alderdiak (EAJ-PNV), betidanik argi izan du Euskadiren beharrrak jokoan zeuden leku orotan egon beharra zeukala, eta zoritxarrez oraindik orain, Estatua-ren esku daudenez euskal herritarrongan eragin zuzena duten hainbat eta hainbat eskumen eta eginkizun, egon beharra daukagu Madrileko gortean. Hori horrela izanik, guk bi ildo nagusitan ekingo diogu gure erantzukizunari; daukaguna defendatu, ez diezagula inork gure autogobernua ukitu eta atzera eraman; eta dagokiguna aldarrikatu eta betetzea exijitu. Bi lerro nagusi horien baitan ekingo diogu lanari, bai gure autogobernurako lortzeke ditugun eskumen eta transferentzien eskakizunean (gizarte-segurantza, pentsioak, kartzela politika, azpiegiturak...) eta baita alor sozial zein politikoa gizartearentzat aurrerakoi eta onuragarriak diren legeak onartuz eta dagozkion konpromezuak gobernuari betearazten. Horregatik, euskal gizarteari gure konfidantza jar dezan hamar arrazoi aurkezten dizkiogu: -Gure autogobernua eta gure Ekonomia Ituna defendatuko ditugu olatu zentralizatzaileari aurre eginez

-Askatasunak eta Giza Eskubideak defendatuko ditugu Sekretu Ofizialen legea, “Mozal” legea eta asilo eta babes politika aldatzeko.

-Gizarte politikak bultzatuko ditugu, Euskadin egiten dugun bezala, gizarte kohesioa bermatu eta desberdintasun egoerak ekiditeko.

-Emakume eta gizonen arteko

Datozen apirilaren 28ko hauteskundeetan, Espainiako Kongresurako EAJ-PNV alderdiaren Gipuzkoako zerrendaburua izango da Joseba Agirretxea Urresti.



EAJ-PNV

“Gure alderdiak (EAJ-PNV) betidanik argi izan du, Euskadiren beharrrak jokoan zeuden leku orotan egon beharra zeukala”

benetako berdintasuna bultzatuko dugu emakumeek jasaten duten indarkeria matxistaren kontrako neurriekin. Emakumeen eta gizonen arteko soldata desoreka desagertatzeko lan egingo dugu, baita erabaki esparruetan emakumeen presentzia eta parte-hartzea areagotzeko ere.

-Pentsio duin eta bidezkoak defendatuko ditugu, pentsio guztiak KPIaren arabera igotzea eta alargunen pentsioak nabarmen hobetzea lortu dugun bezala. Era berean, pentsio sistema bermatu ahal izateko, Euskaditik bertatik kudeatu ahal izatea aldarrikatuko dugu.

-Klimaren aldaketaren erronka-

ri helduko diogu, energiaren iraunkortasuna bultzatuko dugu.

-Euskal azpiegituren inguruan hitz-eman diren akordioak betetzea exijituko dugu, besteak beste, AHT eta aireportuak.

-Industriaren eta berrikuntzaren aldeko apustu irmo eta erabakigarria egingo dugu, ekonomia-aren oinarri baitira.

-Ekonomiaren eta aurrekontuen egonkortasuna ahalbidezeko lana egingo dugu, hazkunde ekonomiko eta sozial batera bermatzeko.

-Madrilen euskal talde indartsua izan behar dugu, negoziazioa eta elkarriketa bidez Euskadientzat onuragarri diren akordioak lortu ahal izateko...

Zer nolako balantzea egin dezakeue legealdi honetaz eta zer nolako aurreikuspena datorrenaz?

Legealdi hau nahiko berezia izan da. Hasteko, sei hilabeteko legealdi jaio-gabe baten ondorio

da, eta hiru urtetara bakarrik iritsi den honek bi kolore ezberdinetako bi gobernu izan ditu; PPrena lehenik, eta zentsura-mozioaren ondoren, PSOErena. Tartean, Kataluniako egoera bere osotasunean. Horrek asko baldintzatu eta mugatu baitu batzuen politika egiteko modua. Baina legealdi honetan EAJk Madrilen duen garrantzia erakutsi dugu. Politikagintzaren eragile nagusia izan gara eta erabaki garrantzitsu guztiak gure botoen galbahetik pasa dira. Hala lortu dugu Ekonomia Ituna eta kupoa bermatzea, pentsioak igotzea, AHT-rako inbertsioak egitea eta bukaera zehaztea eta abar. Hori guztia horrela, hurrengo legealdia ere oso garrantzitsua izango da eta euskal herritarrok asko izango dugu jokoan. Datorrena datorrela, guk irmo jarraituko dugu gurea defendatzen, erabakiorrak izaten, eta gizartearen konfiantzak ematen digun indarrarekin, desafio eta erronka berriei irmo erantzuten.

PSE-EE: “Gehiengo zabal bat behar dugu, eskuineko hiru alderdi atzerakoien aurrean tinko agertzeko”

NOAUA! Espainiako Gorteetako ordezkariak aukeratu behar dira apirilaren 28ko hauteskundeetan. Zuen alderdiak ordezkariarik lortzen badu, zeintzuk izango dira defendatu eta bultzatuko dituen egitasmo nagusiak?

M^a Luisa Garcia Gurrutxaga: Euskal sozialistak, eta noski Gipuzkoakoak garbi dugu bizitzen ari garen une politiko honetan, apirilaren 28ko hauteskundeek duten garrantzia.

Hauteskunde hauetan ez dago bakarrik jokoan, datoren legealdirako gehiengo aurrerakoi edo eskuindar atzerakoien gehiengo baten eraketa. Apirilaren 28ko emaitzen baitan ere gizarteak lortutako zenbait aldarrikapen, hobekuntza eta eskubideak arriskuan daudela garbi dugu. Beraz, ez dira edozein hauteskunde. Vox-en agerpena eta Gobernu sozialista eta aurrerakoa kanporatzeko PPK eta Ciudadanosek adosturiko akordioak erakusten du, mehatxua benetakoa dela eta badagoela arriskua Gobernu eta presidente atzerakoa, matxista, homofobia eta xenofobia izatekoa. Beraz, benetako boto erabilgarria esaten dena Alderdi Sozialistan datza, baita Euskadin ere.

Guk jada jakitera eman dugu zein izango den gure agenda hurrengo legealdirako. Ez “euskal agenda” edo “espainiar agenda” beste batzuk aldarrikatzen duten bezala, hiritarren agenda baizik, euskal hiritarrena barne. Agenda horrek ehun eta hamar neurri edota proposamen jasotzen ditu: hezkuntza, zientzia, ikerketa eta berrikuntza teknologikoa, ekonomia, gizarte ongizatea, kultura, trantsizio ekologikoa, feminismoa eta berdintasuna, eskubideak eta libertateak, lan duina, pentzioak eta gehiago. Beraz, guk



Espainiako Kongresurako PSE-EE alderdiko Gipuzkoako zerrendako bigarren hautagaia izango da M^a Luisa Garcia Gurrutxaga.

PSE-EE

“Apirilaren 28ko hauteskundeetan emaitzen baitan gizarteak lortutako zenbait aldarrikapen, hobekuntzak eta eskubideak arriskuan daudela garbi dugu”

ez dugu asistentzialismoan sinisten eskubiko alderdiek bezala, baita hemengoak ere, guk eskubideetan sinisten dugu; hiritar, pertsona guztiok lortu ditugun eskubideak indartu eta gizarte berrian agertzen ari diren erronka berriak direla eta garapen berriak sustatzean. Horretarako itunak behar ditugu, akordioak eta horiek desberdinen artean garatzen dira. Euskadi mailan ere PSE-EEK beti erakutsi

du akordioetara heltzeko boka-zioa udaletxeetan, Foru Aldundietan eta Eusko Jaurlaritzan ere, gure herriari kohesio emateko eta gure erakundeak eta zerbitzu publikoak sustatzeko, beti ere gure gizartearen dagoen aniztasuna aitortuz eta aldarrikatuz. Une politiko honetan, eta bilakaera hau oso kezagarria deritzogu, akordioak eta itunak berdinen artean eman dira, hiru eskubiena Andaluzian adibidez eta horrek polarizazioa eta muturreko jarrerak besterik ez dakar.

Galdera honekin amaitzeko, balore demokratikoak, gertatutakoaren memorian oinarritzen den bizikidetzeta eta Euskadi mailan gure autogobernua ere kolokan daudela azpimarratu nahi dut, eta bestalde, azken mende-

ko historian zehar sozialistok erakutsi dugun elkarrizketarako, deszentralizaziorako, aurrerapen sozialak garatzeko eta irimotasun demokratikoa jarri nahi dugu hiritarren zerbitzura.

Zer nolako balantzea egin dezakezue amaitu berri den legealdiaz, eta zer nolako aurreikuspena datorrenaz?

Amaitzeaz dagoen legealdia, oraindik ez baita bukatu, bi zati desberdin izan ditu: lehenengo bi urteak Mariano Rajoy eta PP-ren gobernu ez eraginkorra, us-telkeriaz beterikoa sufritu dugu. Urte horietan Espainiak zituen arazo guztiak okerragotu ziren, eta zer esanik ez, gure Europako eta munduko irudia ere asko kaltetu zuen.

Krisialditik ateratzen edo atera ginela zioen gobernuak, baina inoiz ez zuen esaten desberdintasunak eta prekaritatea zirela ateratze modu horren ordainketa. Euskadiri begira ere, gure funtsezko egiturak sendotzeko proiektuak, adibidez AHT-ari diru mordoa kendu zioten batzuen isilatasunarekin. Horren guztiaren ondorioz, gure balantzea oso ezkorra da. Legealdiaren bigarren zatia, orain bukatzeaz dagoena, eta nahiz eta gutxiengoan egon, Pedro Sanchezen eta Alderdi Sozialistaren gobernuak urte eskas batean legealdiaren hasierako urteetan baino neurri eta garapen gehiago burutu dituela esan beharra dago, eta gainera, zeharkako akordioa eta itun baten ondorioa dela zentsura-mozioa eta hau baloreen jarri behar da, desberdinen artean eta guztion onerako akordioetara iristeko dugun ahalmena aitortuz. Oraingo honetan gehiengo zabal bat eskatzen dugu, denok behar dugu, eskuineko hiru alderdi atzerakoi eta zentralisten aurrean tinko agertzeko.

Jendaurrean aurkeztu du EHBilduk, 2019-23 legealdirako lan taldea

Eguno udal gobernu taldeko kideen eskutik aurkeztu zituzten aurreko ostiralean frontoian, datorren maiatzaren 26ko udal hauteskundeetarako Usurbilgo EHBilduk osatu duen hautagaitza osoa. Etenik izan ez eta koalizioaren proiektuari segida emango dion 2019-23 legealdirako lan taldea.

Lanerako gogotsu egon eta "herri hau kudeatzen jarraitzeko talde prestua duzue honakoa: freskotasuna, aire berria, zabaltasuna, gaitasuna eta ilusioa uztartzen dituen ekipoa", Agurtzane Solaberrieta Mesa alkategaiak nabarmentzen zuenez, "presorik eta iheslaririk gabeko eta bakean biziko den Euskal Herri aske, justuagoa, inklusiboagoa eta parekideagoa lortzeko".

5 egitasmo nagusi

Herri-nortasunean, herri-eredu jasangarrian eta ongizartean oinarrituriko ehunetik



Agurtzane Solaberrieta Mesa alkategaia buru izango duen maiatzaren 26ko udal hauteskundeetarako hautagaitza osoa aurkeztu zuen Usurbilgo EHBilduk apirilaren 5ean frontoian.

gora proposamenekin osatu dute herri programa. Haietako bost proiektu nagusi plazaratu zituzten apirilaren 5eko ekitaldian: Santuenean abiatuko den inklusioa eta euskara ardatz izango dituen aniztasuna ikuspegi integralerik kudeatzeko plangintza; Mugikortasun Planaren garapena; Emakumeon Etxearen sorrera; zaintza eta etxebizitza eredu berrien abiaraztea; eta auzo eta herri guztien

Usurbil sendotzeko tresna eta antolaketa egokitzea.

Kanpainaren prestaketa

Maiatzeko hauteskunde kanpaina prestatzeko bilera irekia deitu du Usurbilgo EHBilduk ostegunerako (apirilak 11) 18:30etan Potxoenean.

EHBilduren hautagaitza

Agurtzane Solaberrieta Mesa. Beñat Larrañaga Urdanpilleta. Lur Etxeberria.

Joxe Mari Iribar Zapirain. Aroa Etxeburua Ugartemendia. Luken Arkarazo. Oxkar Santamaria Pikabea. Itziar Basterrika Unanue. Ainhoa Arrozpide Landa. Nerea Goizueta Garmendia. Alazne Olaizola. Ana Eizagirre Sagardia. Xabier Arregi Iparragirre. Fatimetu Hamadi. Eugenio Noriega. Ixi Navarro.

Udal, foru, Europa eta Zubietako maiatzaren 26ko hauteskundeetarako egutegia prest

Maiatzaren 26rako udal eta foru hauteskundeak eta Europakoak daude deituak. Zubietak herri batzarra berritzeko aukera izango dute egun berean. Usurbilgo eta Donostiako Udalek aipatu erakundeak lotutako hauteskunde deialdia plazaratu dute, aipatu moduan, hilabete barrurako.

2019-23 legealdira begira 6 batzarkide hautatuko dituzte zubietarrek; Donostia aldetik aurkezturiko 3 kide eta Usurbil aldetik aurkezturiko beste hiru. Usurbil aldeko hautagaietako bat alkate izango

da legealdiko lehen bi urteetan (2019-21 urte artean) eta Donostialdeko hautagaietako bat azken bi urteetan (2021-23 artean). Hemen Zubietako Herri Batzarra berritzeko egutegia:

■ Apirilak 30-maiatzak 7: hautagaien aurkezpena. Interesdunek idatziz dagokion Udalari jakinarazi.

■ Maiatzak 7: mahaia osatzeko zozketa egingo da.

■ Maiatzak 9: hautagaien aldarrikapena.

■ Maiatzak 20: aurrez botoa emateko aukera Usurbilgo Udaleko Idazkaritzan, goizeko

08:00etatik 14:30etara.

■ Maiatzak 26: hauteskunde eguna, 9:00-20:00 artean Almandegi etxean. Zubietar bakoitzak botu-txartelean bi hautagai hautatuko ditu.

Udal, foru eta Europako hauteskundeetarako egutegia

■ Apirilaren 2an plazaratu zituzten deialdiak.

■ Apirilak 2-maiatzak 16: posta bidez bozkatzeko eskaera egitea Correosen.

■ Apirileko bigarren hamabostaldian: hauteskunde egunerako mahaikideen zozketa Usurbilgo

Udaleko udalbatza aretoan.

■ Apirilak 30: hautagai-zerrendak argitaratuko dira.

■ Maiatzak 6-19: posta bidez bozkatzea eskatu dutenei dokumentazioa helaraztea.

■ Maiatzak 6-22: posta bidezko bozka bidaltzea Correos bidez.

■ Maiatzak 10-24: hauteskunde kanpaina.

■ Maiatzak 26: hauteskunde eguna, 9:00-20:00 artean.

■ Erakunde berrituen eratzea: udalak ekainaren 15ean, Batzar Nagusiak ekaineko bigarren hamabostaldian eta Europako Parlamentua uztailaren 2an.

Usurbilgo Jai Batzordearen lehiaketak martxan

Ekainaren 28tik uztailearen 2ra ospatuko ditugun Usurbilgo jaietara begira, Santixabelei ekiteko txupinazorako hautagaiak proposatu, etxean jasoko dugun egitaraua diseinatu eta bertsopaper lan onenak aukeratzeko lehiaketak abiatu ditu Usurbilgo Jai Batzordeak. Hemen xehetasunak:

Txupinazoa nork jaurtitzea nahi zenuke?

■ Bidali proposamenak maiatzaren 17a baino lehen, kultura@usurbil.eus helbidera edo Potxoenean, Sutegi udal liburutegian, Oiarde Kiroldegian eta Udalean egongo diren kaxetan utzi.

43. Bertsopaper Lehiaketa

■ 16 urtetik gorako usurbildarrentzat.
■ Lanek 6-10 bertso artekoak izan beharko dute, inoiz argitaratu gabeak.
■ Lanak (originala eta hiru kopia) ekainaren 21a baino



Txupinazoa jaurtitzeko hautagaiak proposatu, egitaraua diseinatu edota bertsopaper lanak sortzeko lehiaketak martxan ditu Jai Batzordeak.

JAI BATZORDEA

Ekainaren 28tik uztailearen 2ra ospatuko ditugun jaietara begira, hiru lehiaketa abiatu ditu Jai Batzordeak

lehen aurkeztu, egilea nor den adierazi dezakeen daturik gabe. Lanarekin batera, kartazal itxi batean parte hartzailearen datu pertsonalak aurkeztu. Guztia helbide

honetan: Usurbilgo Udala (XLII. Bertsopaper Lehiaketa) Joxe Martin Sagardia plaza. Usurbil 20170.

■ Sariak: lehen saria 200 euro eta oroigarria; bigarren saria, 150 euro.

■ Oharra: epaimahaiarentzat aurkeztutako lanek behar duten kalitaterik ez badute, sariak eman gabe gera daitezke.

■ Antolatzaileak: Bota Puntutuba eta Usurbilgo Udala.

Egitarau diseinu lehiaketa

Zuen sortze lanak iragarri dezake jaietan zer izango dugun. Abian da Santixabeletako egitarau diseinu lehiaketa. Hemen parte hartzaileentzako jakin beharreko xehetasunen berri:

■ Lehiaketa publikoa eta irekia norbanako nahiz taldeentzat.

■ Nahi adina lan eta neurri librean aurkeztu ahalgo dira; guztiak originalak, aurrez argitaratu gabeak.

■ Diseinu lanerako egitarauko testua Potxoenean jaso edo kultura@usurbil.eus helbidean eskatu. Testu horretan oinarritu diseinu lana. Udalaren logoa jaso beharko du.

■ Lanak pdf formatuan euskarri digitalean (CD edo pendrive batean) eta paperean aurkeztu. Lan bakoitzeko bi kartazal aurkeztu, kanpoan egilearen izengoitiarekin, kartazalaren letrarekin eta "Santixabel egitarau lehiaketa" izenburuarekin. Barruan, A kartazalean parte hartzailearen datuak (izen-abizenak edo elkartearen izena, IFK/IZK, helbidea, telefonoa, helbide elektronikoa...). B kartazalean diseinu lana, euskarri digital eta paperekoan izengoitiarekin.

■ Maiatzaren 17a baino lehen aurkeztu Usurbilgo Udaleko

erregistroan edo postaz bidali helbide honetara: Usurbilgo Udala, Kultura Saila / Joxe Martin Sagardia plaza z.g. 20170 Usurbil. Posta-bulegoan lana bidaltzen deneko data justifikatu eta egun berean emaila helarazi kultura@usurbil.eus helbidera.

■ Epaimahaia Jai Batzordeko bi kideek, diseinu arloan eza gutza duten bi kideek eta kultura zinegotziak osatuko dute.

■ Aurkeztutako lanetan hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista bermatu beharko da.

■ Informazio gehiago:

943 371 999

kultura@usurbil.eus

Txorien kantuak ezagutzeko irteera

Antxomalandia Elkarteak antolatuta, apirilaren 28an, 10:00etan Aginagako ludo-terekin, Mikel Olano basozainaren argibideak bideoekin. Gero, Olanorekin "txorien kantu eta soinu ezberdinak ezagutzeko aukera izango dugu denok egiteko moduko txangotxo bat eginez. Animatu! Primeran pasatuko dugu eta!".

Txokoak Aginagan

Apirilaren 15etik 26ra antolatu ditu Aginagako San Praixku Guraso Elkarteak. Apirilaren 5ean itxi zuten izen ematea. Informazio gehiago: aginaga@eskolatxikiak.org

Gaztelekuko

ekintzak

Udaberriko oporretan ere Gaztelekua zabalik. Ekinmenok antolatu dituzte jai egunotarako. Izen ematea eta informazio gehiago Gaztelekuan:

-Apirilak 15: Ilargi Berdera irteera (DBH1).

-Apirilak 25: Zumaia-Deba irteera (DBH 2).

-Apirilak 27: Ginkana Abentura (DBH 1).

Ingeles

udalekuetarako

izen ematea

Ikastolen Elkarteak antolatuta HH5etik LH5ekoentzat, ekainaren 24tik uztailearen 19ra, astelehenetik ostiralerara 9:00-13:00 artean, atzerriko ingeles hiztunak diren hezitzaileekin. 2, 3 edo 4 asteetan parte hartu ahal izateko aukera eskaintzen dute. Atzerriko hezitzailea etxean hartzen duenak, udalekuak doan izango ditu. Izen ematea apirilaren 12ra arte ikastolako idazkaritzan.

Euskadiko txapelkunak, Madrileko Sektorera asteburuan

Euskadiko txapelkunak ditugun Usurbil K.E.-ko jubenil mutilak Espainiako Sektorean lehiatzera doaz asteburuan Madriler, lagun, senide eta zaletuz beteriko autobusean.

Pozik, gozatu eta duten onena ematera, sei urteotan jorratu duten ibilbidea merezi bezala borobiltzera. "Guretzat sari potoloa da. Sei urteko ibilbidea ezinhobeto borobiltzeko modua", adierazi dio NOAUA!ri Xabat Beloki entrenatzaileak. Lehen urtea du zeregin honetan Xabatek, alboan du hasieratik gaur arte, taldeak sei urteotan bidelagun izandako prestatzaileak, Jon Aizpurua. Infantilen mailako lehen urtean hasi zen, orduan 11 urte zituzten gazte txoak entrenatzen. Bide gozo askoa jorratu dute ordutik. "Euskadiko bi txapelketa jokatu ditugu. Iaz Gipuzkoako Kopako txapelkun izan ginen", oroitarazi digu Jonek.

Garaipen hari, martxoaren 22ko asteburuan etxean jokatu eta irabazitako Euskadiko Txapelketa batu behar zaio. "Oso pozgarria izan zen Oiaro Kiroldgia hala ikustea, ez nuen sekula hala ikusi. Bizi osoan oroituko dugu", adierazi digu Aizpurua.

Irabaztera doaz

Euskadiko txapelketako lau taldeak igaro dira Espainiako Sektorea jokatzera. Jubenil mutilek bigarrenen parte hartuko dute halako hitzordu batean. Aurkarientzat galdetu diegu. "Infor-



Euskadiko Txapelketa irabazi eta asteburuan Madrileko sektorea jokatzera doan Usurbil K.E.-ko jubenil mutilen taldea.

USURBIL K.E.-KO JUBENIL MUTILAK

"Euskadiko bi txapelketa jokatu ditugu. Aurtengoa irabazi dugu. Iaz Gipuzkoako Kopako txapelkun izan ginen", dio Jon Aizpurua.

mazio gutxi dugu, baina arerio gogorak izango dira ziur aski", dio Jonek. Halere Xabatek aipatu duenez, taldearen nortasuna erakustera joango dira, irabaztera. Talde sendoa baitute. "Animikoki oso goian gara. Jubenilen bigarren urteko jokalar asko ditugu", dio. Lehen urtekoak ikasteko kadeteen laguntza ere badute, hitz gutxitan harrobia. Argi diote; taldetik nabarmendu dutenez, "harrobi onena duen" kluba da Usurbil K.E.

Kasu honetan, jubenilena jokalar talde bat baino lagun koadrila da. "Txikitatik batera hazitakoak", Xabatek gogora-

razi digunez eta bere esanetan, "denboraldia hala bukatzea ikaragarria izango da".

Madrileko bidaiaren ostean, usurbildarrek Gipuzkoako Kopa izango dute jokoan. Badute ordea aurrera begirako beste erronkarik, jubenil mutilen taldea, hurrengo 2019-20 denboraldian seniorren taldera igarotzea.

Eskertza

Asteburuan Madrileko joan etorrrian senide eta lagun babesa izango dute Usurbil K.E.-ko jubenil mutilek. Aipatzekoa gurasoen ilusio eta gogo. Bereziki, bi kide goraipatu eta emandako laguntzagatik eskertu nahi dituzte; Jaione eta Txitxo.

Espainiako Sektoreko partidak

- Apirilak 12, 18:00 Safa (Madril).
- Apirilak 13, 11:00 Cisne (Galiza).
- Apirilak 14, 10:00 Dominicos (Aragoi).

Lagun arteko desafioa

Azken hilabeteotan berritzen aritu diren Artzabalgo plaza inauguratzeko lagun arteko herri kiroltako desafioa prestatzen ari dira. Apirilaren 28an ospatuko da, 12:00etan, aipatu plazan bertan. Bi talde lehiatuko dira aizkolaritza eta txinga probetan, lokots biltetan eta lasterka. Plaza horretako komertzioek sustatu dute hitzordua.

Paleta gomazko txapelketa

Pagazpe Pilota Elkartek gizon nahiz emakumeentzat antolaturiko ekimenerako izen ematea zabalik egongo da apirilaren 18ra arte. Maiatzean hasiko da eta Usurbilgo jaietan jokatuko dira finalak. "Gomazko pilotaz jokatu da, bikoteka eta partidak ostegun eta larunbat arratsaldetan izango dira". Izen emateko bideok dituzue: pagazpe@gmail.com edo 653 014 518 (Haritz).

Pagazperen errifa zozketa

Txomin Urdanpilleta izan da Pagazpe Pilota Elkartek antolaturiko errifa zozketako saritua. 2.617 zenbakidun errifaren jabea, bina otordu egokitu zaizkio Saizar eta Aginaga sagardotegietan.



www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Otar-Goxo
Elkagaiak
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

ADA
-MASAJEAK-
633 36 22 33

Beñat Lizaso, txapelduna

Lehia estua (24-25 azken emaitza), erakustaldi bikaina eta garaipena! Bigarren Euskal Pilota Egokituko Master Cup txapelketa irabazi zuen Beñat Lizasok Joseba Lasarekin batera, apirilaren 7an Beasainen jokatu ziren finala. Zorionak! Asier Navaridas sunbillarra eta Javier Etxezarreta donostiarrarekin lehiatu ziren Lizaso eta lesakarra, Beasaingo Antzizar pilotalekuan.



Beñat Lizaso besoak altxata, Beasaingo finala jokatu eta Master Cup-eko garailearen txapela jantzi berritan. Zorionak Beñat!

Lizasoren jokaldi bikaina

Antolatzaileen esanetan, "pilotazaleak txunditu zituzten kirolari bikain hauen jardunarekin, euren aulkiak dantzatu eta pilota jotzeko erarekin. Ziur joan den igandekoa lehen aldia izan zela ikusle askorentzat eta ziur ez dela azkena izango, pilotarien mugimenduen plastikotasunak

bat baino gehiago harrapatu zituen eta. Finalak, gainera, halakoetan horrenbeste eskertzen den lehiakortasuna izan zuen, hasi eta buka, alde batera zein besterako aldeekin. Hemen ere tentsioa ikaragarri antzeman zen azken tantoetan, bikote

bakoitzak falta bat ere egin zuen sakes, baina azkenean partidaren gehienean aurretik joandako Joseba Lasak eta Beñat Lizasok lortu zuten garaipena. Partida bikaina jokatu zuen atzelari usurbildarrak atzean egindako tanto bikain bati esker (24-25)".

Bi txango mendizaletuentzat

Mendirako joera duenontzat, ate joka ditugun jai egunotarako bi hitzordu segidan.

Arantzazura oinez

Tradizio luzeko txangoa datorren oporraldian. Apirilaren 18an goizeko 5:00etan Mikel Laboa plazatik Arantzazura oinez joateko txangoa antolatu du herritar talde batek, autobusean aldatzeko arropadun poltsak utzi ostean. Ibilbidean zehar hainbat geldialdi egingo dituzte, hamaiketako egin edota bazkaritarako. Legazpian, autobus zerbitzua nahi

duenarentzat Arantzazura igotzeko. Arantzazun askaldu ostean, autobusez itzuliko dira, 21:00ak alderako Usurbilen. Informazio gehiago eta izen emateko deitu telefono zenbaki honetara: 600 669 276 (Joxemi).

Baztango Itzuliaren 1. etapa

Baztan inguruak ezagutzeko bira antolatu du Andatza M.K.K.-k hurrengo hilabeteotan. Lehen etapa iganderako, apirilak 14. Oronoz, Mugaire eta Artesiaga lotuko dituen 26 kilometroko ibilbidea osatuko dute, apirilaren 10a baino le-



Andatzakoak txangoetako batean.

hen izena emana zuten mendizaleek.

Andatza Eguna

Andatza kudeatzen hasia den zuzendaritza talde berriak, Andatza Eguna berrindartzeko apustua egina du. Gogoan izan, aurreko maiatzaren 5ean ospatuko da.

Futbola Haranen

Apirilak 13, larunbata

■ 09:30 Infantil neskak: Usurbil F.T.-Santo Tomas Lizeoa KE B

■ 10:45 Infantil mutilak B: Udarregi Usurbil F.T.-Tolosa CFA

■ 12:30 Kadete neskak: Usurbil F.T.-Eibar SAD

■ 15:30 Jubenilak: Usurbil F.T.-Vasconia CD

Apirilak 14, igandea

■ 19:30 Erregionalak: Usurbil F.T.-Oiartzun KE

Kirol txokoak

Usurbil F.T.-k kirola eginez jolas-teko aukera eskainiko die LH-ko ikasleei datorren oporraldian, apirilaren 23tik 27ra Usurbilen. Denetarikoki ekintzetan parte hartzeko aukera izango dute, 9:30-13:00 artean. Argibide gehiagorako: futusurbil@yahoo.es

Eskubaloia Kiroldegian

Apirilak 13, larunbata

■ 09:30 Gipuzkoako infantil nesken txapelketako finala: Pulpo-Aloña Mendi.

■ 11:30 Kadete neskak (Gipuzkoako Kopa): Usurbil K.E.-Leizaran Urdina.

Usurbil K.E.-ren errifa

zozketa

Eskubaloia taldekoen elkarteko azken errifa zozketako zenbaki saritua 0395 izan da. Aialde Berri sagardotegian bi lagunentzako otordua egokitu zaio Amaiur Caballerori.



Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com
600 024 825

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Uraitz, s.l.
Igeltseritza Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Josue Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

ETXEBIZITZA

Salgai

Pisua salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komunak, kafeakzioa. Igogailurik gabe. Dena berrituta. Tximinia jartzeko instalazioa ere berria. Fatxada ere bai. Tel. 695 705 905.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

San Inazio kalean 100 metro-tako etxebizitza salgai. Sukaldea jantokiarekin, 25 metroko saloia, 2 komun, 3 logela haundi eta bi balkoi ditu. Eguzkitsua eta ia estrenatzeaz. 610 52 78 32

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komunak. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

Etxebizitza eta garajea salgai Etxe-aldian (San Esteban kalea). Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela eta bainugela. Etxebizitzak 60m² eta garajeak 22m². 688866968

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharra bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitzak 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60.

Alokairuan

Etxebizitza alokairuan, Santue-

nean. Berritu berria, eguzkitsua, lasaia. Bi logela, dena kanpora begira. 663055659

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabilta. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabilta, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxita. Prezioa negozio-tzeko. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatzikalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearakin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto

kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatzikalean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

120 metro² lokal bat salgai. Alperroburu 3an. 699 306 158

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Usurbilgo Alkartasuna Baserritarren Kooperatibak administratibari-dendari baten beharra dauka, berehala lanean hasteko. Interesatua bazaude, deitu 943 361 114 telefono zenbakira, edo bidali zure CV alkartasuna@usurbil.com

Finantza eta aseguruetakoko ku-deatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetakoko prest egongo enpresaren kontura eta kobreakin. Betebeharrak: Profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldiak@udarregi.eus

Kamarero eta sukaldari laguntzailea behar dira Aratz erretegiari. info@restaurantearatz.com

Zorionak Mare!

Gure etxeko printzesak 7 urte beteko ditu apirilaren 18an. Muxu haundi bat familia guztien partetik.



Zorionak Aitor!!

Apirilaren 12an 10 urte egingo dituzu!!!! Muxu asko eta ondo ondo pasa!!!



Zorionak Eider eta Aratz!

Apirilaren 10ean 6 urte bete dituzu Aratz, eta 15ean zure urtebetetzea izango da Eider. Zorionak eta ondo ondo pasa zuen egunak! Muxuak familiaren partez.



Zorionak Ekhi!

Ondo pasa zure egunean, 11 urte egingo dituzu txapeldun!!! Muxu handi bat ama, aita eta familia guztia- ren partez.



Heriotzak

Asensio Calonge Otaegui

65 urterekin hil zen apirilaren 2an Usurbilen



Joxe Sarasua Garmendia

81 urterekin hil zen apirilaren 5ean Usurbilen.



Zorionak Izaro!

Apirilaren 23an 7 urte beteko dituzu. Muxu handi bat etxeko eta lagunaren partez!



Zorionak Olaia!

Apirilaren 9an 11 urte bete dituzu. Ondo pasako zenuelakoan, muxu asko asko etxekoaren partez.



Zorionak Aimar, Markel eta Ekain!

Zorionak eta ondo pasa hirukote! Muxu potoloak etxekoaren partez.



OHARRA: 2019ko maiatzaren 3an aterako dugu hurrengo astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak...

jakinarazteko azken eguna: apirilaren 28an, igandea, goizeko 11:00etan. Emailaz helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaoccidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Lan bila nabilen neska bat naiz. Interna moduan lan egingo nuke. Tel 602 069 147

Interna edo externa moduan lanean berehala hasteko prest. Neska jatorra, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketan, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Interna, externa edo orduka lan egiteko. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentziekin pertsona helduak zaintzen. Ospitaletan, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzake. Interno edo externa bezala. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. Interna moduan. 663 488 438

Garbiketa lanetan edo pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. 617 064 054

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. Tel. 619 355 819

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna edo externa bezala. Tel. 619 355 819

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna edo externa bezala. Tel. 633 101 867

Emakume euskaldun bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko. Astean 2 egunez, goizez edo arratsalde. Urtarriletik aurrera. 671

547 567

Neska arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen, umeak zaintzen edo garbiketan. 671277904

Mutil arduratsua bat lan bila dabil. Pertsona helduak zaintzen. Interno, externo edo gauak eritxean egiteko. Erreferentziak eta esperientziarekin. Tel. 603 595 656

Lan bila nabil. Helduak zaintzen. Interno, externo edo orduka. 631 996 636.

Lan bila nabil. Paperak egunean. Helduak zaintzen. Interna, externa edo orduka. 631 856 814.

Lan bila nabil. Interna bezala. Tel. 677 256 701.

Lan bila dabilen neska bat naiz. Arduratsua eta esperientziarekin. Etxeko lanak egiten, umeak edo nagusiak zaintzen. Orduka, interna edo externa bezala. Seguitan lanean hasiko nintzake. 637 106 649.

Lan egin nahi dut. Interna edo externa bezala. Pertsona helduak zaintzen, supermerkatuan, tabernetan... Tel. 682 723 520

Pertsona helduak zainduko nituzke, asteburu, jai egunetan eta gauean, baita erietxean ere. 606 661 048 / 943 404015.

Jende heldua zaintzeko prest. Interna moduan edo orduka. Dokumentazio osoa dut. 682 72 35 20.

Neska euskalduna, Usurbilen umeak zaintzen egingo nuke lan udara honetan: ekaina, uztaila edota abuztuaren (goiz, arratsalde edo orduka). 617263123.

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Etxean, ospitalean, gauetan, externa bezala, orduka edo aste-burutan. 671763558

Lan bila nabil interna edo externa bezala. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Urtebeteko esperientzia. Arduratsua, errefe-

rentzia onekin. Telefono zenbakia: 666 295 450

Garbiketa egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko. Esperientzia duen neska, arduratsua. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko. Ospitalean, etxean, gauetan. Garbiketa orokorrean ere bai. 671 763 558

Lan bila nabil etxeak garbitzen edo umeak zaintzen, ekaina eta uztaila, goizetan eta Usurbilen. 608201745.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna, externa edo orduka. 632 541 872

Emakume bat naiz, eta lan bila nabil. Interna, externa, orduka. Helduak edo umeak zaintzen. 676 188 411

Neska bat naiz, eta lan bila nabil. Orduka lan egingo nuke. Helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, ospitalean, baserrian. 632090146

Emakume bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Geriatrico eta lehen laguntzako eza-gutzak ditut. Esperientzia etxeko lanetan eta antolamenduan. Erreferentziak ditut. 612 495 429

BESTELAKOAK

Usurbilen bizi naiz eta Lehen Hezkuntza oposaketak prestatzeko talde bat osatu nahiko nuke ahalik eta azkarren. Klase partikularrak jasoko nituzke 2017. urtean atera zuen batekin, orduko prezioa adostuz. Ima. 688681557

Diamante, madarines eta isabelito japonese arrazako txoritxoak salgai. 659 185 107

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. Tel. 943 429 682 / 637 293 471

3 metroko tolo marroia eta ari- ketak egiteko trifasikoa salgai. Prezioa adosteko. 676 39 89 33

AMC markako eltze bat nahiko berria daukat salgai. Tel. 943 363 201

Oxelo markako patinete bat baldu dugu frontoi inguruan. Aurkitzen baduzu deitu: 615 760 826 telefonora. Iزارo

Ingleseko klaseak ematen ditut 3-4 urteko haurretatik hasita. Klase dibertigarri eta alaiak gaztetxoentzat eta azterketen prestakuntza nerabeentzat. CPE tituluduna. Natali 635909606

Ingleseko eta frantseseko klaseak ematen ditut, etxetara joanda. Jokin. Tel. 600 766 068

Udarregi Ikastolan klase partikularrik emateko jende bila gabilta. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! Telefono zenbakia: 943 36 12 16

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Atalluko Garbigunean. doan hartu daitezke. Asteleneetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGupuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneako Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaual Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 11	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Ostirala 12	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Larunbata 13	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Igandea 14	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Astlehena 15	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Asteartea 16	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Asteazkena 17	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Apirilak 11 - Apirilak 21

Osteguna 18	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Ostirala 19	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Larunbata 20	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Igandea 21	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
CASTILLA-LARBURU
URBIETA KALEA, 7 HERNANI
943552941

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda apirila

12 ostirala

- **Korrika Txikia.** 11:30ean Udarregi Ikastolako eskutik. Amaiera frontoian.
- **21. Korrika.** 14:24-15:42 artean, Aginagako Mapiletik Zubietako hipodromora.
- **21. Korrika festa.** 17:00etan txokolatada eta gero gazteen arteko olinpiadak plazan.

13 larunbata

- **4. Dantza Taldeen Topaketa.** 10:30etatik harrera, argazkia, kalejira eta emanaldia.
- **1. Dantzari Txikien Topaketa.** 16:00etan harrera, argazkia, kalejira eta emanaldia.
- **"Tipi Tapa Pub" ikuskizuna.** 22:30etan frontoian. 00:00etan Larrian Gozo.

14 igandea

- **Baztango Itzulia: 1. etapa. Oronoz-Mugaire-Artesiaga.** 26 kilometroko ibilbidea. 7:30etan irteera Oiardo Kiroldegitik autobusez. Andatza M.K.K.-k antolaturiko txangorako izen ematea itxita. Informazio gehiago: andatza.com

Joseba Irazoki eta lagunak kontzertua

Laboaren Uztaila zikloko lagunek aipatu hilabete kontzertu ziklo-
ra gonbidatu izan duten taldearen emanaldia, Joseba Irazoki eta lagunak kontzertua antolatu dute apirilaren 26rako (ostirala) 22:30etan Sutegiko auditorioan. Emanaldirako sarrerak 10 eurotan eskuratu ahalko dira egunean bertan kultur etxean. Opariak ere iragarri dituzte. "Kontzertura etortzen diren lehen 30 lagunek diska opari!".



Joseba Irazoki eta lagunak hobeto ezagutzeko aukera duzue sarean. Helbide honetan hain zuzen: <https://josebairazoki.bandcamp.com>

Kzgunera datozen ikastaroak

Apirilean arratsalde (16:00-20:00) eta maiatzan goizez (9:00-13:00) zabalduko dute KzGunea. Apirilaren 16tik 22ra itxita egongo da. Hemen datozen ikastaroen berri:

-Apirilak 15-30, 16:00-18:00 "Smartphoneak eta tabletak. Zure Android gailua era biltzen ikasi".

-Maiatzak 2-6, 9:00-11:00 "PC, teklatura eta sagua hasieratik nola erabili ikas ezazu".

-Maiatzak 7-20, 9:00-11:00 "Oinarrizko Internet. Nabigatzen eta posta elektronikoak bidaltzen ikasi". Informazio gehiago: 943 023 684 / tutor.usurbil@kzgunera.net

Jexux Artzeren omenez

Maiatzarekin batera helduko dira Jexux Artze Kultur Elkarteak antolaturiko udaberriko ekitaldiak. Lehen hitzordua, hilaren 4ean, arratsaldeko 19:30etan Sutegin. Ipar Euskal Herriatik Lau Sasuak taldea etorriko zaigu, Vivaldiren "Lau urtarok" euskal instrumentuekin jotzera. Emanaldirako sarrerak aurrez eskuratu ahalko dituzue Lizardin 8 eurotan edo egun berean Sutegin, 10 eurotan. Ziklo honen baitan, "Soinujo-learn semea" filma, "Zoaz pake santuan" antzezlan eta "H-Artzetik, poesia musu zapietan" ikuskizuna antolatu ditu baita Jexux Artze Kultur Elkarteak.

Datozenak

Pentsiodunen

mobilizazioek oporrik ez

Manifestazioa deitu dute larunbaterako 17:00etan Donostiako udal-
txe ondok. Usurbilgo hiru jubilatuek elkarteek hileroko azken ostegunetako elkarretaratzea, apirilaren 25ean 19:00etan Mikel Laboa plazan.

Euskal presoen

eskubideen alde

Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak euskal presoen etxeratzea exijitzeko hileroko azken ostiraletan deitu ohi duen elkarretaratzea, apirilaren 26an 20:00etan Mikel Laboa plazan.

2020ko Euskaraldira

begirako bilera

21. Korrika igaro berritan, 2020ko Euskaraldira begirako lanketa bideratzen hasteko bilera irekia deitu du Euskaraldiko herri batzordeak, maiatzaren 6an 18:00etan Potxoenean.

Apirilean ere kantu-jira

Kantuzaleek ez dute hutsik egingo hilabete honetan ere. Kantu-jira antolatu dute apirilaren 27rako. 12:30etan abiatuko dira Mikel Laboa plazatik.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

ZENDOIA
ENEA taberna

Kale Nagusia 35, Usurbil

BORDATXO
taberna

Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5



**USUR-
BILEN** bizi
erosi!

APIRILEAN GERTU TXARTELAREKIN

Usurbilgo dendetan
erabiltzeko 70
EROSKETA BALEren
zozketa.

SARRERA
DOAN!



APIRILAK 13, LARUNBATA, 17:30

Txirri, Mirri eta Txiribitón berriř Urbilen!



Gure haurrentzako kluba ezagutu eta gure DOAKO ekintza eta jarduera guztiei buruzko
informazioa gure webgunean ikusgai www.urbil.es/eu/umeekin



Benetako UNEAK
MOMENTOS que importan

urbil.es